

# puntua

086

SANDRA  
CARRASCO  
HERRITARREN  
AITORTZAREN  
ZAIN **LEHEN**  
**ELKARRIZKETA LUZEA**





PUNTUA 086

2016-12-09 EGUBAKOITZA  
AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:  
XABIER URZELAI



## AURKIBIDEA

- 4 **Bat-batean** Joseba Usabiaga
- 6 **Irudiz** David eta Goliat, Getarian
- 8 **Mundutik** Brasil: Mysterium iniquitatis?
- 10 **Erreportajea** Abade izatetik santu izatera?
- 20 **Elkarrizketa** Sandra Carrasco, Isaias Carrascoren alaba
- 26 **Adituen esanetan** Gabonak, familia eta derrigorrezko emozioak
- 28 **Kirola** Indarra ala erresistentzia?
- 30 **Otorduan** Etxe Aundi jatetxea: etxeko postreak
- 32 **Moda** Ile motzeko berokiak
- 34 **Motorra** Maite Agirregomezkorta, pilotuaren gidari
- 36 **Gure artistak** Kontxi Idigoras margolaria
- 38 **Kultura** Lander Arteaga, *Zinema uneak* proiektuaren koordinatzailea
- 40 **Liburu artean** *Elkarrekin esnatzeko ordua*
- 42 **Gure altxorak** Oñati: Gurutzeak
- 45 **Gadgetmania**
- 46 **Handitzen, handitzen** Errezeta: *Tomate eta oliba pastel gazia katiluan*
- 47 **Jaioberriak**

## IRITZIA

- 3 **Nire txanda** Maddi Iñarra *Ausentziaz*
- 16 **Hainbat aburu** Aintzane Irizar *Ile-apaindegitik Easora*
- 16 **Eztabaida** Basurdeen ehiza garaiazen luzapena
- 17 **Xixili** Helena Azkarragaurizar
- 17 **Errematea** Joxan Larrañaga *Tsunami mediatikoa*
- 18 **Talaitatik** Mikel Makazaga *Ana, TDHA eta pilulak*
- 32 **Moda** Alaine Altube *Zuk zeuk eginiko Gabonak*
- 44 **Komunikazioa** Goio Arana *Azpitituluak puntu kom*

## IRITZIA NIRE TXANDA



Maddi Iñarra

# Ausentziaz

Koaderno batetik orriak eraztean paper arrastoak gelditzen dira askotan uztaietan trabaturik. Eta, horiek ere garbitu arren, orri asko kentzen baditugu kaieraren lodieran agerian gelditzen da zerbait falta dela. Osatu beharreko bildumetan ere antzera gertatzen da serie osoa bete ezean; falta direnendako espazio hutsek presentzia ematen diote ez denari. Zuhaitz biluzi bat, erreka idorra, gorputz bakarra bi burkoko ohean, belar zapaldua lehenago eseri garen larrean. Zer da ausentzia ez dena ere izanarazten edo agerian uzten badu?

Galdegiten diot sarri neure buruari zerbait edo norbait ezagutu ostean, hura ezagutu aurretik bezala bizi gaitezkeen jada joan denean. Alegia, “zu gabe bizi izan naiz orain arte eta hemendik aurrera ere berdin biziko naiz” hori posible den benetan, edo ausentzia batzuk gure barne uztaietan betirako trabatutako paper arrastoak ote diren. Alderantzizko itauna ere sortzen zait, hots: ea inoiz izan ez duguna izateko nahiarekin lasai bizi gaitezkeen, edo gure bizitza den bilduma osatzeko falta zaigun kromo horren hutsuneak barrutik jaten gaituen. Ausentzia berdina da izan denak eta oraindik izan ez denak sortzen dutena?

Bizitzan zehar askotan biziko dugu galera esperientzia. Heriotzak, joaneko baina etorrerarik gabeko bidaiak, desagerpenak, etenak, amaierak... Badira hainbat leku/pertsona/*gauza* berriro ikusiko/biziko ez ditugunak, haiek nonbaiten existitzen (edo ez) jarraitu arren. Zein diferentzia dago jada ez denak eta oraindik baden arren agian inoiz gehiago izango ez dugunak eragiten duten ausentziaren artean?

Iruditzen zait *jada* ez denak –baina izan denak– edo *oraindik* ez denak –baina izatea nahiko genukeenak– badagoenak bezain besteko presentzia dutela gudan sarri –pentsatzen ditugun heinean erreal egiten ditugulako gure gogoan– eta hor gabiltzala, esentzian, ausentzia eta presentziaren artean funanbuluarena egiten, hutsunearen amildegiaren gainean oreka mantendu nahian. ■■■

BIZITZAN ZEHAR ASKOTAN  
BIZIKO DUGU GALERA  
ESPERIENTZIA

puntu

goiena

TOKIKOM

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagire  
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal  
**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Monika Belastegi  
**Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe

**Hizkuntza arduraduna** Sergio Azkarate  
**Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga  
**Kluba eta banaketa** Marta Leturia  
**Maketazia** Aitor Lagoma, Oxel Arrieta.  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereziar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
943-25 05 05 | Faxa: 943-25 05 00  
berriak@goiena.eus

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
943-25 05 05 | Faxa: 943-25 05 00  
publi@goiena.eus

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943-25 05 05  
harpidetza@goiena.eus  
**Logo Cordaluz:** SS-1509-2014  
**ISSN:** 2443-9738  
**Tirada:** 4.100 ale



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Aldundia



# Joseba Usabiaga

BAT-BATEAN

*Testua: Eneko Azurmendi / Argazkia: J.U.*

Joseba Usabiaga aktore tolosarra antzerkian eta telebistan ibili izan da, gehienbat. Orain, zineman ere hasi da. 2017an estreinatuko den *Aundiya* pelikulan Martin pertsonaia antzezten du.

**Gaztetatik antzerki munduan sartuta egon zara. Zer erakarri zintuen ordu hartan?** Txikitatik eduki izan dut antzerkirako grina hori, baina ez dakit zergatik. *El principe de Bel Air* telesaila asko ikusten nuen, antzerkia ere asko ikusten nuen eta beti esaten nion neure buruari: “Niri hor egotea gustatuko litzaidake, nik uste dut ez nukeela hain gaizki egingo”. Beraz, saiatu egin nintzen, eta, eskola mailako antzerkian hasi ondoren, pixkanaka profesionalizatuz joan da kontua. **Poxpolo eta Mokolo pailazoekin ere ibilbidea egin zenuen.** Bai; Iñaki Odriozola eta Iker Galartza ziren pailazoak eta haiekin batera beste hiru pertsonaia geunden, gehigarri modura. Gero, zoritxarrez, Iñaki joan zitzaigun eta ordutik aldatu egin zen antzezteko modua, guk protagonismo handiagoa hartu genuen. Berdin jarraitu genuen, baina Mokolo gabe. Izan ere, erabaki genuen Iñaki ezin zela ordezkatu.

**Komediarekin eta umorearekin erlazionatu izan zaituzte. Zure esparrua hori dela esan daiteke?** Bai, nire esparrua hori da, bertan sentitu izan naiz erosoan. Txikitatik hori egin dut, gehienbat, esparru honetan pixka bat espezializatu naizela uste dut.

**Ibilbide zabalagoa egin arren, Goenkale telesaillean Tximista pertsonaia antzezteagatik zara ezaguna, batez ere. Zer eskaini zion zure pertsonaiak telesailari?** 11 urtez egon nintzen *Goenkale*-n. Bizpahiru trama nagusi egoten ziren eta nire pertsonaia ez zegoen bakar batean ere. Tabernari moduan kontu kontari ibiltzen zen nolabaiteko bitartekaria zen Tximista, pertsonaia bizia, herrikoia, lagun laguna eta saltseroa. Edozein telesaillean beharrezkoak izaten dira pertsonaia freskagarriak, tramatik at daudenak, eta Tximista horietako bat zen.


**Nolakoa izan zen telebistatik zinemarako pauso hura?** Lan egiteko moduan desberdintasun ikaragarria dago batean zein bestean. *Goenkale*-n, adibidez, ia ez genuen entseatzeko; egunero azterketa moduko bat izaten zen, oso azkarra izaten zen guztia eta oso

errepikapen gutxi egiten genituen. Zineman, berriz, erabat kontrakoa da. Bi minutuko eszena bat egiteko egun osoa igarotzen duzu, poliki eta mimoz.

**Orain arte euskaraz antzeztu izan duzu beti. Ikusten al duzu zure burua gaztelaniaz antzezten?** Sekula ez dut ezer egin gaztelera. Orain arteko antzezlan guztiak euskaraz izan dira, *Goenkale* ere bai, eta zinemako bi filmak ere euskaraz. Baina gaztelera antzezteko inongo arazorik ez daukat, euskaraz dudak erraztasun bera baitaukat gaztelera. Euskal Herritik kanpo ez dut *casting* bakarra ere egin; beraz, ez dut aukerarik izan. Baina gustatuko litzaidake, egia esan. **Aundiya pelikula izan da zure azken lana. Zer kontatzen du eta zein da zure papera bertan?** *Altzoko handia* orain dela 150 urte benetan bizi izan zen pertsona bat izan zen, askok mito bat dela uste izan arren. Gaixotasun baten erruz 2,42 metroko altura zuen, eta hari buruzko pelikula da. Nire pertsonaia haren anaia da eta bien arteko istorio bat kontatzen du filmak, zeukaten harremana.

**Hau, ordea, ez da komedia. Zer moduz sentitu zara zurea ez den esparru batean?** Egia esan, egin ditudan bi pelikulek –*Pikadero* da bestea– ez dute komedia zantzu handirik. Hau oso istorio polita da, drama puntu handia daukana; izan ere, ez zuen bizitza erraza eduki protagonistak. Egia esan, nire burua ikusi izan dut drama egiten, baina orain arte inork ez dit aukerarik eman komedia ez den beste esparru batean lan egiteko. Egin ditudan bi filmetan, gainera, ondo defendatu naizela esango nuke. Garrantzitsuena da zuzendariak ze sentazioarekin gelditu ziren, eta, esan zidatenez, konforme gelditu ziren; beraz, ni ere pozik.

**Entzun dut zure burua Euskal Herrian ikusten duzula etorkizunean. Antzezte moduan gauzak erraz daudela uste duzu?** Lan egiten badut, antzerkiak prestatzen baditut eta nire buruarengan sinisten badut, ez dut arazo handirik edukiko Euskal Herri mailan mugitzeko. Horrek ez du esan nahi, ordea, hemendik kanpo lan egin nahi ez dudunik, baina kontziente naiz Espainia mailan lan egitea oso zaila dela, ni multzo handi bateko beste aktore bat naizelako, zenbaki bat. Horregatik, nire burua Euskal Herrian eta euskaraz antzezten ikusten dut, hemen merkatu ona dagoelako eta errazagoa delako. ■■■



# David eta Goliat, Getarian

IRUDIZ

*Argazkia: Asier Altuna (Bideolan)*

*Testua: Xabi Gorostidi*

Mito biblikoa gure kostaldera ekarrita. Azaroaren 19an baldintza ezin hobeak izan ziren olatu handien maitaleentzat. Ipuinean, Davidek ez zuen indarra erabili Goliat erraldoia garaitzeko. Maisutanez erabiltzen zuen habailarekin (honda) harri bat jaurtiz garaitu zuen Goliat. Kasu honetan, Ibon Amatriain surflari donostiarrak maisuki erabiltzen dakien taula baliatu zuen irudiko bost metroko erraldoiaren aurka. Askoz handiagoa izan arren inori ez zaiola beldurrik izan behar irakatsi zigun Daviden eta Goliat-en kondairak. Asier Altuna arrasatearraren irudian ikusten den legez, Amatrianek irakaspena sakonki barneratu zuen. ■■■





# Mysterium iniquitatis?

MUNDUTIK BRASIL



**Iosu Aranzabal Abaitua**  
Mundukideko kidea  
Paranan (Brasil)

Zenbait eragile –Oxfam Intermon eta PNUD, esaterako– eta pertsona –Thomas Piketty, Gustavo Gutierrez, Martha Nussbaum, Simone Weil, Jose Mugica, Frantzisko aita santua...– ezberdintasun sozialen inguruko arazo larriaz hausnartzen, eta, garai ezberdinetan mundu mailako agenda politikoan txertatzen ahalegindu badira ere, azken hilabeteetan izaniko gertakariak –*brexit*-a Erresuma Batuan eta Donald Trumpen garaipena AEBetako hauteskundeetan–, badirudi, tamalez, gai arantzatsu eta larri honen inguruko eztabaida erabat lausoaraz dezaketela.

Azken hamarkadetan Hego Amerikako zenbait estatuk, hazkunde ekonomiko eta gizarte politikak uztartuz, pobrezia larriari bizi ziren milaka pertsonaren bizi baldintzak hobetzea lortu badute ere, oraindik ere, CEPALen arabera (Comision Economica para America Latina), Hego Amerikak mundu mailan ezberdintasun sozial handienak dituen lurraldea izaten jarraitzen du. Zona honetan, Munduko Bankuaren arabera, hauek dira gizarte ezberdintasun handienak pairatzen dituzten estatuak, hurrenez hurren: Honduras, Kolonbia eta Brasil.

**Historiak** garbi erakutsi digu hazkunde ekonomiko/gizarte

berdintasun ekuazioa ez dela beti betetzen. Brasilek, esaterako, ia hamar urteko hazkunde ekonomiko izan bazuen ere, 2012an biztanleen %1 –1,5 milioi brasildar– estatuan sortzen zen aberastasunaren eta diru etekinen %24,4ren onuradunak ziren. Frantzia eta Ameriketako Estatu Batuetan, aldiz, biztanleen %1 sortzen den aberastasunaren %10 eta %20ren onuradun diren bitartean. Brasilgo kasuan, zenbait ekonomialariren arabera, gizarte ezberdintasun hauek diktadura garaian –1964-1985 urteen artean– hirukoiztu egin ziren, biztanleen %1 diru etekinen %10en jabe izatetik ia %30 izatera pasatu baitziren. Ondoren izan diren gobernu demokratiko guztiek ezberdintasun sozialak %25era jaisteaz lortu badute ere, ez dute jakin izan ezberdintasun sozial hauei irimotasunez aurre egiten.

**Ezberdintasun** sozialei aurre egiteko, hazkunde ekonomiko eta lan adinean dauden pertsonentzako enplegua sortzeaz gain, zerga politikak ezinbesteko tresna dira aukera berdintasuna eta aberastasuna birbanatzeko orduan. Hala ere, badakigu behin gobernuan egonda zerga erreforma progresiboak planteatzeak botere faktikoak –komunikabideak, finantza sektorea, enpresa handiak...– urduri jar ditzaketela. Oro har, aberastasun kontzentrazio handia dagoen lurraldeetan botere faktikoak pertsona gutxi batzuen



TODOVIAJES.COM

## GIZARTE EZBERDINTASUN HANDIENAK PAIRATZEN DITUZTEN ESTATUAK HONDURAS, KOLONBIA ETA BRASIL DIRA

eskuetan egoten dira, eta, sarritan, gobernuaren eta *lobby* hauen artean zenbait interes gurutzatu egon ohi dira tarteko.

**Euskal Herrira** eta Debagoienara salto eginda, azken 30 urteetan, batez ere autogobernua eta sare industrial sendoari esker, giza garapen altua –biztanleko batez besteko errenta altuak, osasun, hezkuntza eta gizarte politika sistema sendoa, gizarte

ezberdintasun onargarriak...– eta bizi maila interesgarria lortu baditugu ere, Juan Jose Ibarretxe lehendakari ohiaren *El Caso Vasco, El Desarrollo Humano Sostenible* liburua irakurri ondoren, sortu zaidan zalantzetako bat da ea gure bizi maila mundu guztira unibertsalza ote daitekeen. Zientziak aspaldi frogatu zituen planetaren muga fisikoak aintzat hartuta, Erromako Clubak 1972an argitaratu zuen *The Limits to*

*Growth* izeneko dokumentu ezaguna oinarri izanda eta Inmanuel Kanten etika –unibertsalza ezin daitekeen lege edo balore oro ez dela zilegi, alegia– bidelagun izanik, badirudi erantzuna ezezkoa litzatekeela. Arrazoizkoa dirudi pentsatzeak, bizi garen munduak muga fisikoak baditu, bertan bizi garen norbanakook eta komunitateok ere mugak izan beharko genituzkeela. ■■■

Ezberdintasun soziala agerian geratzen da Rio de Janeiroko etxebizitzak ikusita. Alde batetik, fabelak; bestetik, etxe-orratz dotoreak.

# Abade izatetik santu izatera?

Jose Maria Arizmendiarieta kanonizatzeko prozesua abian da. “Koopratiben arloan eta ekonomian egin zituen ekarpenengatik eta fede gizona zelako” beneragarri izendatu du Eliza Katolikoak, eta orain, mirarien zain daude, hurrengo pausoak emateko. Testua: **Josu Bilbao**. Argazkiak: **Josu Bilbao eta Maite Txintxurreta**.

**D**uela urtebete, 2015eko abenduan, izendatu zuen Frantzisko aita santuak beneragarri Jose Maria Arizmendiarieta (1915-1976). Urteetako prozesu luze baten ostean, Markina-Xemeinen jaiotako eta Arrasaten parroko izandako abadea kanonizatzeko prozesu zehatza abian jarri zuten horrela.

Mota horretako prozesuak ez dira ohikoak, are gutxiago XXI. mendean, nahiz eta azken santu gipuzkoarra, Santa Kandida Maria Jesuskoa edo Ama Kandida andoaindarra (1845-1912), 2010ean izendatu zuen Benedikto XVI.ak. Izan ere, Horazio Argarate Arrasateko parrokoak dio egoera hau ezustekoa izan zela: “Seminarioan zaudenean ez zaituzte horrelako gauzei aurre egiteko prestatzen, egia esatearren, ez delako ohikoena. Normalean, ez zaizu horrelakorik tokatzen bizitza osoan, eta niri, kasualitatez, egokitu zait. Arrasatera etorri nintzenez martxan zegoen ordurako prozesua, eta gero, pausoz pauso, apurka, aurrera joan dira gauzak. Oraindik, hala ere, santu izatera heltzeko urruti gaudela esan behar dugu. Dena dela, dagoeneko lehenengo pausoa, Elizak bere baitan egin dezakeena, emanda dago, beneragarri izendatu baitute”.

Beneragarri izendatzea, hain zuzen ere, pauso garrantzitsua izan da ireki den ibilbide berri horretan, eta prozesuaren barnean beste urrats bat egin zuten duela bi aste, Arizmendiarietaren gorpuzkiak San Kristobal hilerritik San Juan Bataiatzailearen parrokia barnera eramanda. “On Jose Mariaren gorpuzkinekin bigarren aldaketa egin da dagoeneko. Aldain lurperatua egon zen, eta gero, itxi zenean, San Kristobalgora hilerrira eraman zuten. Izan ere, santu eta dohatsuen hezurrekin erlikiak egiten dituzte, eta, horregatik, Elizak horiekin zerrenda bat egitea eskatzen du. Zerrenda hori mediku batek egin zuen hilerrian, eta gerorako dokumentatuta gelditzen dira gordeta”, aipatu du Argaratek.

Izan ere, lehen, lapurretak izaten ziren erlikiaren kontura, eta, gertakari horiek saihesteko, Eliza Katolikoak kontrol zehatza darama gaur egun: “Herrien artean ere lehiaketa zegoen, ea zeinen santuen erlikiak ziren benetakoak, batak besteari lapurtzen zizkion... Santuak gertu edo ondoan edukitzeak halako prestigioa ematen zuen, eta jendeak bere erlikiak asmatzen zituen. Jose Maria Arizmendiarietaren gorpuzkiak hilerrira arruntetik atera eta toki berezian uzteko garai egokian geundela uste dut. Gero, ikusiko dugu aurrerago zer egingo dugun, kanonizatzeko prozesuarekin egiten den bidearen arabera”.



Arizmendiarietaren estampa.  
Barnean, Elizaren  
lizentziarekin, *Graziak*  
lortzeko otoitza darama.





Ezkerrean, Horazio Argarate parrokoa Arizmendiarieta kanonizatze txostenarekin. Eskuinean, Arizmendiarieta hilobiratuta dagoen tokia, Arrasateko parrokiaren.

### Kanonizatzea, prozesu luzea

Pertsonaren bizitzak “deigarria” izan behar du, Elizaren ikuspegitik, kanonizatze prozesu bat abian jartzeko, baina, gero, bide eta prozedura hori aurrera eraman behar da. Arizmendiarietaren kasuan, “eragin handia izateaz gain, dena idatziz” utzi zuela oso garrantzitsua izan da materiala biltzeko orduan. Haren aztarna, orduan, “oso nabarmen gelditu da”, Argarate parrokoak azaldu duen moduan: “On Jose Mariaren kasuan, ekintzak oso nabarmenak dira. Haren bizitza ikertu zuen Donostiako Gotzaindegiko auzitegi batek, eta sei edo zazpi kutxa bete zituzten testimonioekin eta idatziekin. Gero, hori Vatikanora eraman zuten, eta han, gauza hauek eramaten dituen teologoek osatzen duten komisioak –*Congregatio de Causis Sanctorum*– informazio hori guztia aztertu zuen. Auzia, azken finean, *Super Virtutis* da. Hau da, gizon hark fedea, maitasuna eta itxaropena maila gorenean bizi izan dituen edo ez ikertzea.

Horrela, Arizmendiarietaren idatziak eta haren inguruko testigantzak aztertu zituzten, eta, azkenean, epaian, denak ados azaldu ziren. Bozketan hamabitik hamabi baiezko irten ziren: “Hortik, benetan agintea dutenen eskuetara pasatzen da kontua, kardinaletara eta gotzainen komisioetara. Hor ere, ia denek baietz bozkatu zuten, eta, ondorioz, aita santuak Jose Maria Arizmendiarieta kristau goren mailan ibili zela eta beneragarria dela erabaki zuen. Hala ere, Elizak hor ez du bere auzia bukatzen. Izan ere, beste zerbait gehiago dagoen edo ez ikusi behar du. Beraz, azken baietza mirari bat gertatzera baldintzatzen du”.

Baina, hori kontuan izanik, zer da mirari bat Eliza Katolikoarentzat? Argarateren berbetan, “ulertu eta azaldu ezin daitekeen zerbait, erlijio giroan izan dena”, hain zuzen ere. “Kasu horretan, adibidez, norbaitek esaten duela sendakuntzaren bat jaso duela Arizmendiarietari otoi egiteagatik. Testigantza horiek badaude, ikertu egiten dira. Medikuek batzorde

batek pronostikoa eta diagnostikoa ondo eginda dauden edo ez begiratzen du, eta sendakuntza horren zergatia ez badute bilatzen inondik inora, Elizak interpretazio teologiko bat egiten du. Hau da, hor mirari bat gertatu dela; alegia, Jainkoak eskua sartu duela. Azpimarratu behar da medikuen batzorde oso zorrotzak ibiltzen direla lanean”, aipatu du Horazio Argaratek.

Mirari bat baldin badago, beato izendatzen dute pertsona hori. Beste mirari bat gertatu behar da edota Elizarendako martiri moduan zendu behar da santu izateko. “Ibilbidea hori da, luzea eta zaila. Jendeak, nolabait, *katxondeo* moduan hartzen du hau guztia, baina Elizarendako oso serioa da. Pertsona ugari ibili dira lanean, datuak biltzen eta sekulako txosten zehatza idazten”, azpimarratu du Arrasateko parrokoak.

### Proposamena, espero ez zen tokitik

Arizmendiarieta kanonizatu zitekeen ideia eraren txinparta, arraroa iruditu arren, ez zen Arrasaten edo inguruetan sortu: “Espero ez den tokitik, esango nuke. Haren kideak *Esperancia Cooperativa de Mondragon*

## ZEUDEN 400 AUZIEN AURRETIK AZTERTU ZUTEN ARIZMENDIARRIETARENA

## DOHATSU IZENDATZEKO, MIRARI BAT BEHARKO LUKE AUZIAK; SANTU EGITEKO, BI

## GORPUZKIAK ARRASATEKO PARROKIAN DAUDE GORDETA, DOKUMENTATU OSTEAN

deritzon horretan, Ormaetxeak, Gorroñogoitiak, Larrañagak eta horiek bazuten bere baitan gizon handia izan zela, eta oso fededuna, baina inondik ere ez zuten pentsatzen santu egin behar zutenik. Gainera, denek esaten dute horren aurka egongo zen lehenengoa On Jose Maria bera izango zela, berari ez zitzaioke horrelakorik gustatuko. Baina kooperatibak sortzeko Espainia mailan legeak aldatu behar izan zituzten, eta orduan, Arizmendiarieta, ausardia ikaragarriarekin, Madriler joan zen ministerioko atea jotzera. Madrilen, beraz, gizon ezaguna zen eta handik etorri zen ideia. Hango ezagunen artean sortu zen”.

2005ean onartu zuen Juan Maria Uriarte gotzainak prozesua aurrera eramatea, eta, dokumentazioa biltzen ibili ondoren, “urteak aurrera zihoazen, eta, bailaran 30 pertsona aukeratu ondoren, sekulako galdeketa sakona egin zieten. Hortik pentsatu zuten, agian, kanonizatzeko prozesu bat abiarazi behar zela. Juan Maria Uriarterengana jo zuten, 2005ean, eta, gotzainak ontzat eman ondoren, hiru urtez datuak biltzen ibili ziren. Azken galdeketa edo saioa 2009an egin zen, eta, ostean, Vatikanora eraman zuten. Dokumentazio guztia heldu zenetik ontzat ematera arte, urtebete igaro zen”.

Kanonizatze prozesuan eta baita Arizmendiarietaren oroitzapena mantendu nahian lanean dabil Arizmendiarieta Kristau Fundazioa, Jose Maria Arizmendiarietaren Lagunak elkartearekin batera: “Eliza barruan, bai kanpo, horren alde daudenekin hartu-emanak sortzea, indar ezberdinak elkartu nahian. Ebangelizazio sozial hori indartu eta bultzatu nahian. Kanonizatze prozesuan ere buru-belarri gabiltza”, dio parrokoak.

### Arreta piztu du Vatikanon

Arizmendiarietaren bizitzak Vatikanon arreta piztu duela azaldu du Arrasateko parrokoak: “Nahiz eta guk hemendik urruti sentitu dezakegun Vatikanoa, gizon

## San Vicente Ferrer, Arrasaten

Nahiz eta Valentzian jaio, Arrastan eta inguruetan aztarna handia utzi zuen San Vicente Ferrerrek. “Kasu oso bitxia da. Arrasaten kale bat dago bere izenarekin, nahiz eta bera valentziarra zen. Parrokian ere, beirate bat dago berari eskainia, – ikusi ezkerreko irudia– eta esan ohi da Arrasatera etorri zenean sekulako jendetza kristautasunera bihurtu zuela. Mendeetan izan dugu, gainera, parrokiaren, San Vicente Ferrerrek predikatu zuen pulpitu, eta abadeek, ohitura moduan, pulpitura igotzeko lehenengo mailari musu ematen zioten. Gaur egun, oinarria bakarrik gelditzen zaigu –ikusi eskuineko irudia–. Urribarrin eta Garagartzan, gainera, bere irudiak daude eta hori arraroa da inon ez delako horrelakorik aurkitzen. Beraz, deigarria izan zen bere igarotzea”, azaldu du Argaratek.

Aita Mennik ere, bertakoa izan ez arren, aztarna handia utzi zuen, eta horren adierazle dira gaur egungo ospitaleak, besteak beste. Mojek bere arropak eta beste hainbat gauza dituzte gordeta, Gesalibarren, museo antzeko gela baten.





**Ezkerrean, Arizmendiarietaren hilobian, Horazio Argarate eta gotzaindegiko ordezkariak. Eskuman, Arizmendiarietaren gorpuzkiak ateratzen.**

## Ez da santua baina...

Jarraitzaile ugari izan ditu *Amandre Santa Ines* moduan ezagutzen den gorpu momifikatuak, nahiz eta ez izan ez dohatsu ezta santu: “Ez dago santu moduan hartuta, eta ez du kanonizazio ibilbiderik hasita ere, inork ez duelako defendatu hori horrelakoa zenik. Hala ere, Arrasaten, amesgaiztoen kontrako sineskeran pisu handia izan du, eta, santu izan gabe, eliza barnean gelditu zen hilobiratuta, kapera baten”.

Santuen erlikiekin egin izan den moduan, *Amandre Santa Ines*-en hilkutxako zatiak eraman izan dituzte herritarrek euren etxeetara: “Haren zerraldoko larru zatitxoak falta dira, jendeak etxera eramaten zituelako gauean umeen burukoetan jartzeko. Umeak lasaitu egiten omen ziren horrela”.

Arrasateko parrokiaren dagoen gorpua 1607an zendu zen Ines Ruiz de Otoralarena da. Haren gorpua usteldu gabe mantendu zelako (*corpus incorruptus*), santu izango balitz moduan hartu izan zuten herritarrek, eta hortik dator amesgaiztoen aurka zuen ustezko eraginaren sineskera.

haren bizitza irakurri zutenean harrিতa gelditu ziren. Hiru kardinal ere etorri ziren kooperatiben mugimendu guztia ikustera, eta, are gehiago, auzia Egoitza Santura heldu zenean, aurretik aztertu beharreko 400 inguru zeuden. Hain gertukoa ikusi zuten, injustizia ekonomikoari lotuta eta krisi garaian Elizak arlo horretan eragina izan duen kristau baten eragina azaleratzea nahi izan zuten. Beraz, besteen gainetik Arizmendiarietarena jarri zuten. Arreta piztu zuen Vatikanon. Oraingoan, uste dugu ez duela aita santuak ikusi, baina kide batzuk helarazteko lanean daude buru-belarri. Izan ere, behin baino gehiagotan kooperatibismoa gorapatu du Frantziskok”.

### Mirarien zain

Beneragarri, Eliza Katolikoak izendatu du jada, eta orain, beato edo santu bilakatzeko, mirarien menpe dago prozesua. Dirudenez, aurrera egin dezake oraindik auziak.

“On Jose Mariari dagokionez, hiru kasu oso berezi daude, eta, gainera, pertsona horiek jarri dira Elizarekin harremanetan. Bata Madrildik, bestea Getxotik eta beste bat Amasa-Villabonatik. Hiru gauza larri gertatu dira osasun mailan, ume bati, baserri bati eta gizon bati. Orduan, jendea otoitz egiten hasten da eta sendakuntza bat dator egoera larri horietatik. Haiek hain hunkituta gelditzen dira gauza horrekin, Donostiako gotzaindegira mirari bat gertatu dela uste dutela esanez deitzen dute.

Elizak, horrelako kasuen aurrean, ikerketa bat jartzen du abian: “Gauza garrantzitsua izan daitekeela uste bada, datu guztiak biltzen dira, eta mediku batzordea jartzen da lanean. Informazio guztia bildu ostean, Vatikanora bidaltzen da. Hiru kasu izan dira, eta badirudi kasu bat Vatikanora eraman behar dela erabaki dutela jada. Noski, inork ez du barregarri geratu nahi, eta orduan, bertako jendeak,

Arrasatekoek, adibidez, sekulako miraria nahi dute, inongo eztabaidarik izango ez duena. Hiru kasu horiek hor daude, eta orain da garaia pentsatzeko ea merezi duten Erromako mediku batzordera bidaltzea edo ez. Oraingoan, erabaki hori ez da hartu. Ni, pertsonalki, oso harrিতa nago hain jende ezberdina eta kasu ezberdinak direlako, eta ia ez zutelako On Jose Maria ezagutzen. Haren estampa hartu eta otoitz egiten hasi ondoren, hori gertatzea, eta gotzaindegira deitzeko adorea izatea... Ezinezkoa ematen zuen gauza batetik, muturreko gauza batetik, sekulako sendaketa gertatzea...”.

### Debagoieneko santu eta dohatsuak

Santu debagoiendarrak egon, bi badaude, baina duela mendeak izendatu zituen Elizak. Nagasakiko martiriak dira horiek. Bergarako Igokundeko Martin Agirre 1597an Nagasakin hil zuten, eta, ondorioz, martiri eta santu izendatu zuen Elizak. Aozaratzako Mikel ere Japonian, 1636an, erail ondoren izendatu zuten. Oraingoan, horiek dira ibarreko santu bakarrak. Hala ere, Horazio Argaratek azaldu duen moduan, santu izendatu dituzten beste bik euren aztarna nabariak

utzi zituzten bailarako hainbat tokitan. San Benito Mennik edo Aita Mennik eta San Vicente Ferrerrek, hain zuzen ere.

Dohatsuei dagokionez, bestalde, oraindik bi prozesu irekita daude, martxan, bailaran. Isabel Lete Landa osintxuarraren beatifikazio prozesua Benedikto XVI.a aita santuak ireki zuen, eta Perun, Amazonas oihaneko gunean gotzaina izan zen Martin Elortza elgetarraren beatifikazioa ere, oraindik, prozesuan dago. Gainera, badaude jada beato diren batzuk. Sabino Aiastui, Miguel Leibar eta Carlos Eraña marianistak, Espainiako gerra zibilean erail zituztenak, eta baita Gesalibarko Santa Ageda auzoko Jose Maria Bengoa pasiotarra ere. Eta Erguin baserriko Clara Ezkurra arrasatearra 1936an fusilatu ondoren izendatu zuten dohatsu.

### Zerbait aldatuko litzateke?

Zer aldatuko litzateke, Arrasaten, esaterako, Arizmendiarieta dohatsu edo santu bilakatuko balitz? Eraginik izango luke herriko jaietan edota zaindaritzan, adibidez? Eta parrokiak?

“Dohatsu izendatuz gero, eskualde mailan, hura bizi izan zen eta ibili zen inguruetan haren aldeko mezak edo jaiak ospatu ahal izango dira, eta santu baldin bada hori, baina mundu mailan izango litzateke. Adibidez, Chicagon, norbaiti bururatzuz gero auzo bateko parrokiari San Jose Maria Arizmendiarieta izena jartzea, eskubidea izango luke pertsona horrek. Beato mailan, elizkizun publikoak egin daitezke. Zaindaritzak ere aldatu litezke. Arrasateko patroilakatu ahal den edo ez? Arrasateko herriak erabakiko balu, bai. Haren irudiak ere jarri ahal izango litzateke parrokiari. Orain, adibidez, haren izena duen plakatxo bat daukagu elizan, baina haren irudirik ez. Beneragarri den heinean, gurtza pribatu mailan izan behar delako da hori”, azaldu du Horazio Argaratek. ■■■



**Amandre Santa Ines-en gorpuaren hilkutxa parrokiaren.**



## HAINBAT ABURU



Aintzane Irizar

# Ile-apaindegitik Easora

A ze titular interesgarria! Lehendakariaren emazteak – izenik ere ez dauka itxuraz emakumeak– eta Maddalen Iriartek topo egin omen zuten ile-apaindegian. Eskerrak egunkari horrek jakinarazi digun, informazio-eskubidearen zaindari, beti bezala. Eta gu, noski, era horretako berri-gosez.

Ez dakit nora begira egon diren gainerako komunikabideak horren garrantzi handiko gertaera baten berri ez emateko. Interes ezkuturen bat izango dute, seguru.

Desinformazioa nagusi gainerakoetan.

Eta egia da inor ez garea perfektuak mundu honetan, ezta Gipuzkoako komunikabide txit goren informazio-eskubidearen defendatzaile sutsu horretako kazetariak eta erredakzio-buruak ere. Horren buru-belarri ibili ziren Maddalenen eta lehendakariaren emaztearen gorabeheren peskizen atzetik, ezen nekatuta iritsi baitziren larunbat arratsaldera; eta Eason kontaketa-lanetan hasi orduko nahastu ziren, saiatu saiaturik ziren, baina ezin, neketsua baita oso milatik gora

zenbatzea... Eta horrela, milaka pertsona zeuden tokian, ehunkatxo batzuk besterik ez zituzten zenbatu ahal izan. Ezin zaio inori dena perfektu egiterik eskatu, ezta munduko kazetaririk onenari ere. Hala eta guztiz ere, egunkarian txokotxo bat egiteko detailea izan zuten larunbat arratsalde euritsu eta hotz hartan erraustegirik ez dugula nahi esateko elkartu ginen guraso, haur, aitona-amon eta gainerakookin. Esker mila bihotzez eta lasai, barkatuta zaudete akats txiki horregatik! ■■■

## XIXILI

Helena Azkarragaurizar

ABENDUAK 8



## ERREMATEA



Joxan Larrañaga

# 'Txunami' mediatikoa

Trump jaunaren eta Clinton andrearen arteko ika-mikak zirela-eta hedabideek eman dioten koberturaz ari naiz, eta ETBk harritu nau gehien. Hango berriei emandako denbora gehiegizkoa izan da.

Gainera, urriaren 31n, Santu Guztien Jaiaren bezperan, sartu digute euren ohitura: Halloween. Ondo iruditzen zait daukan umore puntua eta disfrutatzea...

baina badaude kontraesanak: -Mozorrotuta jendea ikaritzen aritzen dira paranoiko horiek; batzuek hiltzaileak, gainera.

-Jaia egin, kalabazetan kandelak ipiniz, mozorrotu...

Heriotza ezkutatzeko, heriotzari txantxa egiteko, tabu delako?

Eztabaida interesgarria sorrarazten du heriotzaren gaiak. Guraso, hezitzaile, katekista, abade, zer esaten diegu haurrei heriotzari buruz? Zer esan behar da, zer egin behar da, zer diogu guk?

Gizarte honek heriotza ezkutatu egiten du. Haur eta gazteei ezkutatu egiten zaie; lagundu egin behar zaie, heriotza biziaren ondorio denez, nolabait onartzen.

Azkenik, *Black Friday*, ostiral beltza. Konsumoa suspertzeko, prezioak merkatu eta aukera onak eskaintzen dituzte. Telebistan ikusi ditugun irudietan, kanpin-dendetan gaua igaro duen jendea, saltokia ireki orduko lehenengo lerroan egoteko. ■■■

## EZTABAIDA BASURDEEN EHIZA GARAIAREN LUZAPENA



XABI CAMPO  
EHIZTARIA

“Gaizki iruditzen zait, martxoan basurdeak haurdun egoten direlako. Asko dago, ados. Baina proposatuko nuke beste era batera egitea ehizan. Adibidez, Aloiña atzean babestutako zona bat dago eta hor urtean behin bakarrik uzten digute ehizan egiten, baina geroz eta basurde gehiago dagoen lekua da hori. Astebururo zona batzuk zehaztuta izaten ditugu ehizan egiteko, baina batzuetan badakigu, gainera, ez direla asko egoten. Konponbide bat behar da”.



MIKEL OLANO  
BASOZAINA

“Basurdeek urteotan baserritarrei kalte dezente egin diete. Baserritarrak kexu izaten dira, eta konponbide bat eman beharra dago. Basurdeen habitata azken 30 urteetan erabat aldatu da, zikindu egin da, eta, bizi baldintza hobekak dituztenez, kopurua igotzen ari da. Ehiza denboraldia hilabete luzatzeak ez du esan nahi basurdeen espeziea arriskuan jarriko denik. Hartu den neurri bat da baserritarrek eskatu dutelako, eragiten dizkieten kalteengatik”.



IDOIA BOLLAR  
NATUR ESKOLA

“Mendietan hauen ugaritzean eragiten duen faktore nagusia geu gara: ehizaren bidez predatzaile gisa funtzionatzen dugu eta honela populazioen gora egitea ekidin dezakegu. Ehizatzen den kopurua nahikoa ez bada, hauen populazioa orekan mantentzeko bi bide daude: gehiago ehizatzea edo predatzaile natural berrien presentzia onartzea. Honela, hausnarketa beste hau izan beharko litzateke: prest gaude otsoa gure mendietan onartzeko?”.



MIRIAM UGARTE  
ALBAITARIA

“Nabarmena da basurdeen kopurua azkenengo urteetan asko ugartu dela. Horrek arazo asko ekartzen dizkie baserritarrei, batez ere. Konponbide bat aurkitu behar dela ere zentzuzkoa dela iruditzen zait. Baina ehiza denbora, hain zuzen, hilabete hori luzatzea ez dakit irtenbide bidezkoena eta etikoena ote den; izan ere, basurdeen erditze garaia otsailetik apirilera bitartean izaten da, eta apirilaren 2ra bitartean luzatuko dute ehiza denboraldia”.

**Mikel Makazaga**

*Ardatz formazio eta ikasketa zentroa*

# Ana, TDHA eta pilulak

Balizko kasu bat: Ana etorri da gurera. Bulegora sartu eta nire parean eseri da. Maialenen ama da Ana. Ardatz-era normalean amak etortzen dira aholku, azalpen edota lasaitasun eskean. Gaur, Ana bereziki urduri sumatzen dut, galdera asko egiten ari zaizkit, nire hitzetan sosegua aurkitu nahian bezala. Ez dit hitz egiten uzten.

Maialeni TDAH diagnostikatu zioten orain hiru urte –arreta defizitaren nahasmendua, hiperaktibitatearekin–, eta pilula batzuk eman zizkieten unean zituen zailtasun akademikoei aurre egiteko. Badirudi emaitza akademikoetan ez dela hobekuntzarik islatzen. “Egia da -esaten dit Anak- Maialen lasaiago dabilela eskolan geroztik, baina buruarekin ezetz esaten dit, ez direla bere aurreikuspenak bete”.

**Espezialista askoren** hitzak promes gisa jaso ei zituen Anak, eta engainatua sentitzen da; minduta eta noraezean.

Eta zalantzan jartzen hasia da dena, bai diagnostikoa bera eta

baita patologia horri ematen zaion erantzuna ere bai. Pilula ez da saldu zioten bezain “miragarria”.

**Berba jarioari** hasiera eman eta TDAHren gaiak hizketan hasi zait, asko irakurri eta informatu den ama baten ahots abailduaz. Nik adi-adi entzun diot, arreta guztia eskainiz, bere bakarrizketa moztu gabe. Arrapalada baten hasi da hizketan, arnasa aldika sakon hartuaz:

*“Nire garaian neska-mutikoak asko mugitzen ziren, baina garai hartan ez zegoen ez metilfenidatorik, ez TDAHrik... Akordatzen naiz nire alabak trastornoa zuen jakiteko ala ez egin zidaten galdetegiaz, bertan haurtzaroa bera oinarri hartutako galderak egin zizkidaten. Galdetegiak nik (eta aitak) erantzun behar genuen, baita bere eskolako bi irakasle ere. Uste dut guraso eta irakasleak ez garela psikoterapeutak galdera hauek erantzuteko. Zer da arreta gutxi? Zer asko?...”*

*Badakit ama bezala nik ere ez dudala beti ondo jokatu. Oroitzen dut nola haserretu nintzen Gizarteko irakaslearekin, Maialenen aurrean, asko ikasi ostean laukoa jarri ziolako. Eta ez nintzen ohartu, irakaslearen figura zein puntura arte baliogabetu nuen. Eta badakit denbora ezagatik ezin izan diodala nahi besteko arretarik eskaini, eta, beharbada, maiz pastilla baten eskuetan utzi ditudala haren beharrianak...*

*Nire kabuz ere irakurtzen hasi naiz eta gero eta argiago daukat TDHA ‘asmatutako trastornoa’ dela -dio Anak, hitz egiteari utzi gabe-, gizarteak sortutako eredu berrien ondorioz sortutako arazo berri baten asmatutako. Sigmunt Baumanek bere lanetan azaltzen duen bezala, aro likidoan barrena gabiltza. Hau da, gaur berria dena bihar zaharra izango da jada, eta, inoiz ez bezala, abiadura horretan bizi behar da gizakia, atzean gelditu ez dadin.*

*Nerabeek ere gizarteko esijentziei erantzun behar diete,*

*hauek ere atzean geratu ez daitezten, eta esijentzia horietara ez ailegatzea gaixotasun bihurtu du gizarteak. Eta ikusten dudanez, neronek ere irentsi egin dut falazia hau. TDHA asmatutako bat da eta ez da nik esaten dudalako. Bere asmatzaileak ere halaxe aitortu zion Der Spiegel astekari alemaniarrari hil aurretik.*

*Hara, Mikel, tristeza iruditzen zait gehiago mugitzen den ikasle edota beharrian gehiago dituen ikasle bati ematen zaion trataera; ‘pilula miragarria’ ematen zaio ondo portatu dadin, behar duen atentzioa eman beharrean. Funtsean atentzio defizita izan badu, inork ez diolako behar duen atentzioa ematen, eta dena pilula baten eskuetan uzten da. Gizarte baten porrota adierazten du honek, pertsonak ahaztuz eta gizarte gaixo baten irudia marrastuz.*

*Beharbada, Maialeni limiteak jartzen ez naiz onena izan, ez dakit... Ez dut ezetz modu finko baten adierazten jakin izan sarritan, bere negar eta petralkeriak nire pazientziaren*

*gainetik jarri izan dira. Nire barruko uholdeari eustea kosta egin zait berarekin gatazkarik dudanetan.*

*Okerrena badakizu zer den? Gakoa denok dakigula non dagoen. Gurasoen maitasunean dago gakoa, jaiotzen direnetik euren laguntzaile izan behar dugu. Beraiekin hitz egin eta elkarrekin egunerokotasuneko kontuak entzun eta konpartitzea da funtsean behar dutena. Simplea bezain zaila da mundu zoro honetan, baina egin daiteke”.*

**Bat-batean isilik** geratu da Ana. Begietara sakon begiratu eta irribarre batekin nire entzute aktiboa eskertu dit.

Barrenak hustu ostean, zutik jarri, arnasa sakon hartu eta bulegoko atera abiatu da. “Eskerrik asko, Mikel” esan ostean alde egin du, niri agur esateko ia denborarik utzi gabe. Niregan aurkitu nahi zuen lasaitasuna bere barruan aurkitu du, inolako pilularen beharrik gabe. ■■■■

## ENGAINATUA SENTITZEN DA ANA, MINDUTA ETA NORAEZEAN



# “Sufrimendua berdina da biktima guztiontzat, alde batekoentzat zein bestekoentzat”

**SANDRA CARRASCO** ISAIAS CARRASCOREN ALABA

Arrasaten astebetez jarri duten Memoriaren Plazan izan da herrikideen aurrean testigantzak partekatzen. Urduri zegoen agertokira irten aurretik, baina oso gustura geratu dela aitortzen du. Hedabideetan ematen duen lehen elkarrizketa luzea da honako hau. Testua: **Eneko Azkarate**. Argazkiak: **Xabier Urzelai**.



**A**sko kostatu zaio PUNTUAK egindako elkarrizketa eskariari baietz esatea. Ez du gustuko jendearen aurrean hitz egitea, ezta iritzi politikoen gainean jardutea ere. Berba gutxikoa da, baina zuzen, argi eta zehatz ari da. Memoriaren Plazan biluztu da. Hark bezala, atentatu baten aita galdu zuen Olatz Etxabe herrikidearekin batera; Batallon Vasco Español delakoak

Kanpanzarren 1975ean erail zuen Iñaki Etxaberen alabarekin batera. Biek kontatu dute eurek eta familiak sufritu dutena. Aitortzaren eta memoriaren gainean jardun dute. Etxabek herriaren eta gizartearen aitortza badu. Ez, ordea, estatuarena – legez, Iñaki Etxabe ez zuen talde terrorista batek erail, eta, ondorioz, Olatz eta haren familia ez dira terrorismoaren biktimak, horrek dakarrenarekin–; Carrascok estatuaren legezko aitortza badu, eta herritarrena ere aldarrikatzen du. Egoera horiek normalizatu beharraz jardun dute Memoriaren Plazan. Sandra Carrasco elkarrizketatzeko aukera izan du PUNTUAK oraingoan. Artikulu hau sinatzen duen honek hurrengo baterako uzten du Olatz Etxaberekin solasaldia, Arrasateko beste biktima horren testigantza ere jasotzeko.

#### **Ze moduz zaude?**

Orain, oso ondo.

#### **Zelan animatu zara zeure Herriko Plazan, terrorismoaren biktima moduan, testigantza kontatzera?**

Donostian ere izan nintzen Memoriaren Plazan. Oraingoan, Aintzane Ezenarrok deitu zidanean Arrasatera zetozela-eta parte hartzeko eskatzen, baietz esan nuen.

#### **Martxoan bederatzi urte beteko dira aita erail zutela.**

#### **Ez zara plazetan edo hedabideen aurrean agertzekoa. Zergatik?**

Aita hil eta biharamunean agertu nintzen Arrasateko plazan egin zen elkarretaratzean eta irakurri nuen komunikatua jendearen eta hedabideen aurrean. Neuk erabaki nuen hala egitea. Amamaren etxean igaro genuen gaua amak eta anai-arrebok. Amak gau osoa eman zuen negarrez. Familia egoera hartan ikusteak amorr handia sorrarazi zidan. Une hartan, hedabide piloaren aurrean, lasai-lasai egin nuen berba, baina sutan nengoen, amorr biziz. Gerora ez dut gustuko izan hedabideen aurrean edo ekitaldi publikoetan agertu, aitaren omenez, erail zuteneko urteurrenetan egiten den ekitaldian izan ezik.

#### **“Zergatik aitari?”, galdetuko zenion zeure buruari.**

Samurra zen haren aurka egitea. Zinegotzi izan zen denboran, bagenekien *txartelak* bazituela eta

**“AITA TIROKATU ETA JAITSI NINTZENEAN, ANBULANTZIAREN ZAIN GERATU GINEN AMA ETA BIOK; INORK EZ ZIGUN LAGUNDU”**

**“EZ GENUEN USTE HALAKORIK GERTATUKO ZITZAIONIK, BATEZ ERE, ZINEGOTZI IZATEARI UTZI OSTEAN”**

**“AITARENA GERTATU ZENEAN LAGUN BARIK GERATU NINTZEN; INORK EZ ZIDAN DEITZEN...”**

Goian, familia-argazkia eta Sandra, aitarekin jaunartze egunean.



*tokatzeko* arriskua bazuela. Baina ez genuen uste halakorik gertatuko zitzaionik, batez ere, zinegotzi izateari utzi ostean.

#### **Zelan gogoratzen duzu egun hura?**

Egun normala zen. Lanera joateko irribarretsu irten zen etxetik. Segundo gutxira hiru suziri modukoak entzun genituen. Ama berehala joan zen eskaileretan behera eta ni leihora gerturatu nintzen. Hasieran ez nintzen ohartu tirokatua izan zela. Ikusi nuen zailtasunak zituela autotik ateratzeko. Gero ikusi nuen lurrera erortzen. Elkarri begiratu genion. Betiko geratu zait aitaren begirada hura. Jaitsi nintzenean, ambulantiaren zain geratu ginen ama eta biok. Inork ez zigun lagundu. Izara batekin babestu genuen. Anbulantzia eroan zutenean odoletan zegoen izara zuri hura.

#### **Arrasaten, zeure herrikideen aurrean, atera zinen esperientziak partekatzea Batallon Vasco Español-ek 1975ean erail zuen Iñaki Etxaberen alaba Olatzekin batera. Ezagutzen zenuten elkar?**

Ez, ez, Olatzek eta biok ez genuen elkar ezagutzen. Eta nik ez neukan hari eta haren familiari gertatutakoaren berririk. Egia esan, hunkitu egin nintzen Memoriaren Plazako beste biktima batzuen testigantzak ikusi eta entzun nituen. Ez da igartzen zein motatako biktimak garen, baina azken mezua garbia da: denok sufritu dugu, ez daukagu ezinikusirik edo gorrotorik, bakean bizi nahi dugu, elkarbizitzan... Sufrimendua berdina da biktima guztiontzat.

**Debagoieneko ikastetxeetako gaztetxoekin tailerrak egin dituzte Memoriaren Plazan. Ikasle nerabeak negar malkotan atera dira Plazatik tailerretan ikusi eta landutakoaren ostean.**

Bai? Ez nekien. Hunkigarria da, bai. Batez ere, guretako, biktimontzako. Baina argi dago, mezua guztiengana heltzen da. Duela sei urte deitu zidaten Derioko eskola batetik testigantza kontatzera joateko. Eta joan nintzen. Oso urduri nengoen. Ez nago jendearen aurrean hitz egitera ohituta. Askok kontatzen zait. Aholkatu zidaten, lagungarri moduan, publiko arteko pertsonaren batengan jartzeko begirada. Hala egin nuen. Hizketan hasi nintzenean pertsona hura negarrez hasi zen. Baita alboan zituenak ere. Harritu egin nintzen, nerabeak zirelako. Ez nuen uste horren barrura helduko zitzaienik mezua.

#### **Zelan daroazu jendearen aurrean, ordainlekuan, lan egitea?**

Ondo. Arrasatear asko pasatzen da bertatik, baina ondo, arazo barik. Hasieran, okerrago. Aita hil eta hilabetera hasi nintzen haren lanlekuan. Eta hasieran uste nuen jendeak txarto begiratzen zidala, Isaias Carrascoren alaba izatearren. Haiek bazekiten ni zein nintzen, baina nik ez zeintzuk ziren. Alde horretatik, jendea normal tratatu dut. Arnaldo Otegi berari ere tokatu izan zait inoiz kobratzea. Azkenekoz, kartzelatik atera berritan. Elkarri begiratu genion, “eskerrik asko” esan zidan eta nik, “agur, agur”.

#### **Neurri baten, biluztu egin zara zure herrikideen aurrean, Memoriaren Plazan.**

Bai, egia da. Oso urduri nengoen hitzaldia hasi aurretik, baina, egin ostean, oso gustura geratu nintzen. Esan didatenez, orain arte Memoriaren Plazan, hiriburu eta herri ezberdinetan egin diren ekitaldi berezien artean jende gehien erakarri duena izan da Olatz Etxabek eta biok lehengo egunean egindako hitzaldia. Aurretik, Donostian izana



nintzen Memoriaren Plazan. Amari laguntzera joan nintzen. Hura izan zen beste biktima batzuekin esperientziak partekatu nituen lehen aldia.

**Bost urte igaro dira ETAK jarduera armatua behin betiko uztea iragarri zuenetik. Igarri duzu aldaketarik?**

Arrasaten gauza gutxi aldatu dela uste dut. Pankartak dauzkagu kalean...

**Min egiten dizu kalean, zeure herrian, presoan aldeko kartelak edo pankartak ikusteak?**

Orain, ez. Lehen, bai. Aita hil osteko lehen urteetan, sutan jartzen nintzen kalean presoan argazkiak edo haien aldeko manifestazioak ikustean. Eta kaletik joaten nintzen, ni neu bakarrik, kartel horiek kentzera. Irati taberna ondotik pasatzen nintzen probokatu guran... Amorrurua handia neukan barruan.

**Lagun barik geratu zinela esan duzu. Haiei ere amorrurua diezu?**

Gaur, ja, ez. Ez du merezi. Nik ez nuke modu horretan jokatu, halere. Ez nituen lagunak bazterrean utziko. Eman nizekien aukerak, baina ez nuen jarraikortasunik izan. Kalean edo ordainlekutik pasatzen ikusten ditudanean, beste edozein pertsona bezala hartzen ditut.

**Espero eta eskatzen duzu herritarren partetik aitortza bat...**

Bai, horixe eskatzen dut. Jendeak aitortzea, modu agerikoan, hura txarto egon zela, aita erail izana txarto egon zela.

**Aitarena gertatu eta hilabete batzuetara herriko alkatea atxilo eroan zuten. Horren gainean ere hitz egin zenuen Memoriaren Plazan. Orduan ere une desatseginak bizi izan zenituen?**

Alkatea [Ino Galparsoro] atxilotu zutenean manifestazioa egin zuten herriko kaleetan, eta, jeneralean, gure etxe ondotik manifestazioak pasatzen ez diren arren, egun hartan etxe ondotik pasa ziren; manifestariak ama ikusi zuten autobus geltokian eta irainak esan zituzten; anaiak ere arazoak izan zituzten eskolan... Oso une gogorak izan ziren. Aitak ere merezi zuen aitortzaren bat, manifestazioren bat alkatearen alde protestatzen zenbiltzan haien aldetik. Horregatik diot herritarren, herriaren, aitortza eskatzen dugula.

**Orain, ja, ez daukazu amorrurik?**

Ez, orain ez. Etakide izandakoak dauzkat lankide, eta, bestalde, ezker abertzaleko kide batek lagundu zidan amorrurua gainditzeko, beste alde ikusten...

**Aipatzen duzun ezker abertzaleko kide hori zein da?**

Nahiago dut publikoan ez esan.

**Zelako harremana daukazu harekin?**

Autobideko Arrasateko ordainlekuan lan egiten dudanez, sarritan ikusten nuen pasatzen.

Apurka-apurka, harremanak egiten hasi ginen.

Hizketan. Ez dut gogoan nolatan, baina bat-batean

**“NAHIKO NUKE JENDEAK AITORTZEA, MODU AGERIKOAN, AITA ERAIL IZANA TXARTO EGON ZELA”**

**“EZKER ABERTZALEKO KIDE BATEK LAGUNDU ZIDAN AMORRURUA GAINDITZEN”**

**“ARRASATEN GAUZA GUTXI ALDATU DA; PANKARTAK DAUZKAGU KALEAN...”**

**Argazkian, Arrasateko kalean, elkarrizketaren momentu batean.**



elkartzen hasi ginen. Mezuak elkarri trukutzen...

Gerora, sarri hitz egin dugu, luze. Nirekin oso ondo portatu da. Nire txikitako eta betiko lagunak baino askoz hobeto.

**Zergatik diozu hori?**

Aitarena gertatu zenean, lagun barik geratu nintzen. Inork ez zidan deitzen, bisitatzen, kalera ateratzeko gerturatzeko. Bakarrik sentitu nintzen. Ezker abertzaleko beste honek, ostera, idatzi egiten dit, hedabideetan albiste bat ikustean deitu egiten dit, urtebetetze egunean zoriondu egiten nau... Edozein lagunek egin beharko lukeena. Beste ideia politiko batzuk ditu, baina partekatzen du mina eta lagundu dit beste sufrimendu batzuk ere ulertzen.

**Arrasaten bizi zara, baina kalean-eta ibiltzen zara?**

Gutxi. Hala ere, erabaki genuen Arrasaten bizi izaten jarraitzea, nahiz eta une batzuetan damutu. Gaur egun, berdin dit. Antxintxika egitera-eta ateratzen naiz, kalera ere bai, baina gutxi ibiltzen naiz Arrasaten, kalean zehar.

**Epaitua eta kartzelan dago zure aitaren hiltzailea, nahiz eta epaiketa polemikoa izan zen, berriro ere erreplikatu behar izan zelako, froga faltarengatik.**

Hura kartzelan ikusita, lasaia nago.

**Konbentzita zaude hura izan zela hiltzailea?**

Hala diote lekukoek.

**Memoriaren Plazan aipatzen dira tortura kasuak edota kartzelan dauden senideak bisitatzeko ehunka kilometro egin behar izaten dituztenen testigantzak. Zer irizten diozu?**

Ezker abertzaleko lagunarekin berba egin izan dut horren gainean, eta lagundu egin dit beste alde hori

ere ezagutzen. Lehen, ez nuen ikusi ere egin gura.

Orain, bai.

**Zer eskatzen diozu etorkizunari?**

Ez dut pentsatu ere egiten horretan.

**Eta aitak, zer pentsatuko zukeen zutaz?**

Ez dakit nigandik harro egongo zen edo ez, ez dakit...

**Zelakoa zen aita?**

Lagunen oso laguna, pertsona ona, atsegin eta dibertigarria, beti txantxetan zebilen, beti laguntzeko edo faboreak egiteko gertu... Hau ez diot aita zelako, e, horrelakoa zen benetan.

**Olatz Etxabek eta zuk zeuk kontatutakoak kontatu ostean, ezberdin ikusiko zaituztete aurrerantzean herrian?**

Nik uste dut baietz. Hitzaldiaren ostean, jende batzuen gertutasuna sumatu dut. Inoiz berba edo agurtu bako jendea hurbildu zitzaidan berbaldiaren ostean.

**Arrasateko herriak, Udalak, inoiz ez du omenaldirik egin zure aitaren alde. Aitaren heriotzaren urteurrenean Alderdi Sozialistak antolatu ohi du ekitaldia. Faltan sumatzen duzu herriko erakunde nagusiaren inplikazioa?**

Bai. Uste dut sufritu dugun guztiok jaso beharko genukeela aitortza moduko bat. Memoriaren Plaza bada hori, neurri batean, baina modu esplizituagoan jaso beharko genuke. Aitaren izena kale bati jartzeko eskaria egin genuen bere garaian, baina udalbatzak ez zuen onartu. Badakigu non gauden, eta, horregatik, ez genuen ustekabeen jaso Udalaren erantzuna, baina ondo legoke halako aitortza bat egotea herriko erakunde nagusiak. ■■■

# Gabonak, familia eta derrigorrezko emozioak

ADITUEN ESANETAN PSIKOLOGIA



**Testua: Unai Serrano**  
Psikologoa  
([psicologounaiserrano.com](http://psicologounaiserrano.com))  
**Argazkia: pexels.com**

Gabonak gainean dauzkagu berriz ere, eta hausnarketa txiki batera eramane naute.

Gabonak –teorian– familia artean ondo pasatzeko garaia da, ondo jan, ondo edan eta norbaitek Jesusen jaiotza ere ospatuko du. Baina errealitatea, askotan, ez da horrelakoa. Gabonak nola pasatu behar diren gizarteko asmakizun bat da, ohitura bat, moda bat. Gustuko dituen edo zer ospatu baduena ondo moldatuko da garai honetan, baina besteak...

Askotan entzuten da faltsutasunaren garaia dela, baina hau, agian, ez da hainbeste garaia gaitik, alkoholarengatik eta gehiegikeriarengatik baizik, edanda gaudenean errepresioak eta kontrolak alde egiten baitituzte. Kaleak argiz betetzen dira, musika polita edonon, eta badirudi mundu guztia ilusionatua dagoela, zoriona nagusi dela, dena ondo dagoela. Norbera izan ezik. Berriz diot: Gabonak nola pasatu behar diren gizarteko asmakizun bat da, ohitura bat, moda bat. Eta horrek ez gaitzala kontrako efektura eramane, hots, dena *zoragarria* dela uste izatetik dena *faltsukeria* dela uste izatera.

## Makalaldia izateko sasoia

Gabonetan familia elkartzeko da, baina falta direnak –haserreak bitarteko, bananduta daudelako, etxetik urrun daudelako, zendu

direlako...– nabarmentzen dira eta haiek gertu ez izateak mina ematen digu. Beraz, gainditu ez diren dueluak birbizitzen dira.

Gainera, urte bukaeran, inkontzienteki, urtearen erreposoa egiten dugu eta gure helburuak bete badira ondo, baina –normalean gertatu ohi den moduan– nahi baino gehiago egiteke gelditu bazaigu, makalaldia izaten dugu.

Eta bai, gehienak familian elkartzeko gara, baina hau ez da beti trago atsegina izaten. Ala?

Orduan, zergatik elkartzeko gara? Maite gaituen familia bat dugula sentitzeko? Autoengainua? Baina ez al da osasuntsuagoa benetan maite ditugunekin soilik elkartzeko? Familiakoak izan edo ez izan. Aukera bat da.

## Beste alternatiba batzuk

Jende asko oportetan ateratzen da –hau beste moda bat da egun– eta horrela, batzuk, badute aitzakia bat familiarekin ez elkartzeko inolako arazorik sortu gabe. Beste aukera bat da.

Hirugarren aukera bat ere badugu: familiarekin elkartu baino lehen nola sentituko garen edo nola jokatu nahi dugun erabakitzea. Aurre hartzea egoerari eta ez uztea zurrunbiloari gu eramaterik. Izan ere, familian elkartzeko garen, batzuetan kalte egiten duena da nola tratatzen gaituzten; normalean txikitzen izan dugun rola araberatzen tratatzen baitezake; gu aldatu gara, heldu bihurtu gara, baina besteak



ZINTZOAK IZAN  
GAITEZEN GABONAK  
OSPAZTEKO ERAN,  
GOGOIA EMATEN  
DIGIN ERAN

gurekiko duten ikuspuntua ez da beti gure orainera moldatzen. Iraganen besteentzat izan garenaren arabera tratatzen gaituzte; hau batzuetan atsegina izan daiteke guretzat, baina beste kasu batzuetan harriz beteriko motxila. Beraz, halakoetan aurre hartu eta ez laga inori zuk nahi ez duzun bezala tratatzen.

Aholku bat: ez da gomendagarria momentu hauetan gai garrantzitsuez eztabaidatzea, are gutxiago alkohola tartean delarik.

Eta hausnarketa honetan beste bat gehitu zait: familiako

kide guztiek baldintza beretan igarotzen al ditugu Gabonak? Bazkari eta afari goxoak nork prestatzen ditu? Nola prestatzen ditu? Estresatuta eta bakarrik? Eta nork jaso mahaia, ontziak garbitu...? Kontuan izan dezagun janaria elkarlanean prestatzea oso osasuntsua dela eta hori ere familian egoteko modu positiboa dela, eta bizi gaituzten lasai! Frijituak ondo ateratzen ez badira, zer da, ba? Ez estresatu, egin barre. Ez gaituzte gehiago maiteko frijitu perfektuak egiteagatik, ezta? Tira, horrela bada, malo. Beraz,

konpartitu guztia, ez soilik otorduak.

## Nortasunari eutsi

Izan gaituzten zorientsu, gure benetako erara, maite gaituztenek onartuko dute eta errespetatzen ez gaituztenak agerian geratuko dira. Ez gaude ezertara derrigortuak, gure kontzientziagatik ez bada.

Zintzoak izan gaituzten Gabonak ospatzeko eran, gogoia ematen digun eran, baina puntu garrantzitsu bat kontuan izan: udako oportetan askotan ondo pasatzearen arrazoia ondo

pasatzea erabaki dugula izaten da. Bai, zorientasuna jarrera bat da, erabaki bat.

Gure burua programatzen dugu ondo edo gaizki bizitzeko; beraz, erabaki dezagun Gabon hauek nahi dugun bezala ospatuko ditugula, baina ondo pasatzeko programatu gaituzten.

Eta amaitzeko, urte berrirako desio bat: besteengandik jasotzen ditugun sinpatia eta desio onak soilik Gabonen bueltan direla kritikatu ordez, zergatik ez ditugu urteko gainontzeko sasoi guztietarako eskatzen? Eta bide batez, guk ere ematen? ■■■



# Indarra ala erresistentzia?

KIROLA JARDUERA FISIKO AEROBIKOA ETA ANAEROBIKOA



**Testua: Eneko Azurmendi**  
**Argazkiak: Goiena eta Flickr**

Kirola edo jarduera fisikoa praktikatzen dugunean, nagusiki, bi ariketa mota bereizten ditugu: aerobikoa eta anaerobikoa.

Horiek bereizteko, bihotz maiztasuna izan behar dugu kontuan. Minutu batean izan dezakegun bihotz maiztasun maximoa kalkulatu behar dugu, eta, ondoren, haren balioak ehunekotan ateratu. Ehuneko jakin baten edo beste baten aritu, ariketa ezberdina landuko dugu.

Kiroldegiko langilearen arabera, kirol edo jarduera fisiko gehienetan bi motak aurkitu ditzakegu, baina zer lantzen ari garen zehaztuko duten faktoreak

ekitearen intentsitatea eta bolumena izango dira.

## Ariketa aerobikoa

Modu sinplean esanda, ariketa fisiko aerobikoa intentsitate baxu edo ertaineko ariketa fisikoak praktikatzean egiten den ariketa da. "Bihotz maiztasun maximoaren %50-%80 bitartean egiten diren ariketak dira. Tarte horren barnean, hala ere, ariketa aerobiko desberdinak bereizten dira. Mota honetako ariketak denbora luzez praktikatu daitezke", azaldu du Jokin Atxagak, Zubikoa kiroldegiko langileak.

## Ariketa anaerobikoa

Ariketa anaerobikoa, berriz, aerobikoaren aurkakoa da; hau da, intentsitate altuko ariketak dira,

denbora laburrean praktikatzen direnak. "Bihotz maiztasun maximoaren %80tik gora egiten diren ariketak sartuko dira. Anaerobikoaren barnean ere mota desberdinak bereizten dira", azaldu du Atxagak.

## Oxigenoa

Funtsean, bi ariketa mota horien arteko diferentzia gure organismoak erabiltzen duen energia iturria izango da. Aerobikoan, gorputzak oxigenoa erabiliko du energia lortzeko. "Orokorrean esanda, gure gorputzak oxigenoaren bitartez hidratoak eta gantzak erabiltzen ditu erregai gisa", zehaztu du kiroldegiko langileak.

Anaerobikoan, aldiz, gorputzak ez du oxigenoaren beharrik



izango energia eskuratzeko. "Gure gorputzak ez du oxigenorik erabiltzen, organismoak modu azkarreko energia iturriak behar dituelako; hain zuzen ere, glukosa, fosfokreatina, ATP eta halakoak.

## Aerobikoa, oinarri modura

Kiroldegiko langilearen esanetan, ariketa anaerobikoa egiteko, lehendabizi, aerobikotik "pasatu" behar dugu. "Gomendagarria da anaerobikoa landu aurretik aerobikoaren oinarri sendo bat izatea". Gaineratu du "ezinbestekoa" dela zuzenean ariketa anaerobikoa egiten jardun aurretik intentsitate baxuan gorputza berotzea, hura egin behar dugun jarduerara prestatzeko eta ohitzeko.

## Biak lantzea komenigarria

Oro har, biak praktikatzeko duen garrantzia azpimarratu du Atxagak. Hala ere, adierazi du "bakoitzak dituen helburuen arabera" izango direla egin beharreko ariketa motak.

Hasiberriei, aerobikoa lantzea gomendatzen die, gorputzak "oinarri sendoa hartu dezan" Behin hau ondo landuta izan ostean, ariketa anaerobikoekin ekitea izango litzateke egokiena, Atxagaren arabera.

Bestalde, fisikoki oinarri sendoa duten pertsonen, ariketa anaerobikoak egiteko gomendioa egiten die Atxagak, "errendimendua handitzeko". Hala ere, aerobikoa lantzeari ez uzteak duen garrantzia azpimarratu nahi izan du. ■■■

Ziklismoa ariketa fisiko aerobikoa da, gorputzak oxigenoa erabiltzen du-eta energia lortzeko.

Halterofilia anaerobikoa da, gorputzak ez du-eta oxigenorik erabiltzen, beste energia iturri batzuk baizik.

## Ariketa fisiko aerobikoak dakartzan onurak

Lehen aipatu bezala, ariketa aerobikoetan oxigeno asko erabiltzen da, eta, horren ondorioz, sistema kardiobaskularra landu eta hobetzen da, honen ondoriozko heriotzak murriztuta. Horrez gain, kolesterol maila jaisten laguntzen du, zirkulazioa hobetzen, biriken gaitasuna hobetzen, gorputzeko ehunak indartzen, eta abar. Energia lortzeko gantzak erabiltzen direnez, argaltzeko ere ezin hobea dela dio Atxagak.

## Ariketa fisiko anaerobikoak dakartzan onurak

Ariketa mota hori intentsitate altuko dela jakinik, gorputzaren etekin maximoa hobetzeko erabiliko da, bai abiadura eta baita taupada altuetan ibiltzeko gaitasuna landuta. Hori kontuan izanik, sistema muskulu-eskeletikoa landuko dugu. Izan ere, abdominalak egitea, pisuak altxatzea, abiadura handiko korrikaldi motzak egitea eta mota horretako ariketek gorputzaren tonu muskularra indartzea ahalbidetzen dute. Bestalde, ariketa mota horrek onura kardiobaskularrak dakartza.

# Etxe Aundi jatetxean etxeko postreak

OTORDUAN



**Eloi Iartza**  
Sukaldeburua  
Argk.: A. Txintxurreta

Gabon sasoian hainbat menu berezi eskainiko dira Oñatiko Etxe Aundi jatetxean. Urte amaieran egiten diren laneko edota familiarterako bazkari eta afarietarako eskaintza zabala izango dugu, eta Errege egunetarako otordu bereziak izango ditugu gurean. Etxean egindako platerak izango dira menu horietan guztietan, eta tarte

hau aprobeztatu nahiko genuke irakurle guztiei urtea zoriontzeko.

## Etxean egindako postreak

Gabon sasoiko menuetan eskainiko ditugun postreak etxean egindakoak izango dira, beti bezala. Postre horien artean, hauek egongo dira: ondorengo orrian dagoen txokolate-moussea jogurt-izozkiarekin; gazta-tarta; pantxineta; sagar-banda; jogurt eta intxaur-saltsa kopa; arrozenea; panakota edota hostopila, besteak beste.

## Bestelako menuak

Gabon sasoitik aparte ere izaten dugu hainbat menuen eskaintza jatetxean. Bezero bakoitzak, bere gustu eta ekonomiaren arabera, nahi duena aukera dezake. Menu berezi merkeena 28 eurokoa da; garestiena, berriz, osatuagoa dena, 45 eurokoa. Tarteko prezioa daukan menua ere badaukagu, eta horrek 37 euro balio du.

Bi janleku ditugu: bata 100 lagunendakoa; eta bestea, 220rendakoa. Erreserba egin nahi izanez gero, deitu jatetxera. ■■■



## Etxe Aundi jatetxea

- **Webgunea:** [Etxeaundi.com](http://Etxeaundi.com).
- **Telefonoa:** 943 78 19 56.
- **Helbidea:** Torreazo 10, Oñati.
- **E-posta:** [etxeaundi@etxeaundi.com](mailto:etxeaundi@etxeaundi.com).



## Txokolate-moussea jogurt-izozkiarekin

### Osagaiak (4 lagunendako)

- Arrautzak, 4
- Txokolatea, 350 g
- Azukrea, 250 g
- Gurina, 250 g
- Esne-gaina, 150 g
- Jogurt-izozkia
- Fruitu gorrien *coulise*-a
- Fruitu gorriak, 250 g
- Azukrea, 250 g
- Ura, 100 ml

### Prestaketa

1. Moussea egiteko urtu gurina eta txokolatea elkarrekin.
2. Irabiatu arrautza-gorringoak eta aurreko masarekin nahastu.
3. Harrotu zuringoa eta azukrea. Nahasketa horri gehitu esne-gaina harrotuta.
4. Aurreko bi nahasketak elkartu, haizea emanaz, ez jaisteko.
5. Sartu hozkailuan 4 orduz.
6. *Coulise*-a egiteko, jarri irakiten horretarako behar diren osagai guztiak, 20 minutuz. Ondoren, pasa irabiagailu elektrikitik eta txinotik.
7. Bukatzeko, muntatu platera norberaren gustura. Txokolate zuria eta menda-orria gehitu ahal zaizkio.

Zailtasuna: ●●●●●

**ETXE AUNDI JATETXEARI ESKER**  
IRABAZI BI LAGUNENDAKO OTORDUA.



943 25 05 05



[kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)



KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

**HARTU PARTE!**

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



# Nortasuna duen jantzia

MODA ILE MOTZEKO BEROKIAK



Hotzari aurre egiteko, berokiak dira aukera onena, zalantzarik

**Testua: Mainer Arregi**  
**Argazkiak: Instagram eta Pull&Bear**

gabe. Baina bada bat une honetan punta-puntako joera dena: *bear coat* edo ile motzeko berokiak.

Joera honekin, 70eko hamarkadari keinua egiten dioten *look* gaurkotuak sortu daitezke. Gainera, betikotik ateratzen laguntzen duten jantziak sortzen dutela dio Ana Alberdi moda adituak: "Betiko jaketatik aldutzen gaituzte: betiko basiko gris, beltz edo lumadun jaketatik. Gainera, oso errazak dira konbinatzeko eta *look* oso bati nortasuna ematen diote modu oso sinplean konbinatuta. 70eko hamarkadan oso modan egon ziren, eta, moda ziklikoa denez,



**Animalia estanpatua duten berokiak dira joera.**

**Ile luzeagoa edo laburragoa duten *bear coat* jakak daude merkatuan.**

IRITZIA MODA



**Alaine Altube**

Protokoloan aditua  
alainealtube@gmail.com

## Zuk zeuk eginiko Gabonak

Gabonak berriz ere! Su baxu eta gaztaina erre usaina. Gure herrietako kaleak argi biziak pizten ditugu; zergatik ez gure etxeetako giroa ere piztu?

Moda-modan dago orain DIY (zuk zeuk egin) joera, eta, merkea izateaz gain, egun ilunetan hurrekin zerbait egiteko aukera ematen du. Bonbilla bat, kola eta koloretako purpurina nahikoa dira zuhaitzean apaingarri berri bat izateko; edo pinaburu bati kartoi mehearekin buru eta hanka batzuk itsatsita orein, hontz edo katamixarrak egin ditzakegu. 2016ko Gabonetako koloreak berriz ere gorria – nola ez! –, urrea eta zilarra dira. Baina oraingoan, naturako piezekin jolastuko gara: pinaburuak, pinu txikiak, egur zatiak, eta abar.

Nobedadeetako bat aurten, alde batetik, tartana (koadroa) da. Eskoziar ukitu berezi horrekin mahai-oihal edo eskuzapiak ezin politagoak geratzen dira mahaian. Beste aldetik, itsas giroan sartzen gaituen urdin argia ere joera da. Kolore horretako bolak eta itsas izar batzuekin zuhaitzerako apaingarri bikainak ditugu.

Gogoan izan edozein txoko apaindu dezakezuela, zuen gustuen arabera. Ez ahaztu apaingarri bat gehiegizkoa iruditzen bazaizue gehiegi dela. Disfrutatu etxea apaintzen. Ez al da, ba, etxea gurea? ■■■



berriro bueltan dira. Oso lodiak eta beroak dira".

### Konbinatzeko errazak

"*Bear coats* jaketaren protagonismo handia hartzen dute *look*-etan; beraz, nahiz eta estilo ezberdinak lortzea posible den, nahi gabe antzerako emaitzak lortzen dira. Osagarriek markatuko dute estilo ezberdinen aukera hori. Zapatilekin informalagoa, takoidun zapata edo botinekin jantziagoa eginez. Aipatu moduan, oso beroak izaten dira normalean, eta ondorioz, gure kasuan, behintzat, oso egokiak hotza egiten duenerako. Hemen jendea animatu da jantzerari", argitu du Alberdik.

### 'Look' proposamenak

Ezberdinak diren bi momentu edo egoeratan ile motzeko berokia nola konbinatu daitekeen



proposatu du Ana Alberdik: "Modu informalerako galtza bakero apurtuak, puntuzko jertse lodi bat, zapatilak, larruzko motxila bat eta *bear coat* jaka dira aproposak. Eta ukitu formalagoa emateko, aldiz, galtza bakero ilunak, puntuzko jertse beltz bat, takoidun zapatak –saloi itxurakoak edo botin beltzak–, larruzko poltsa txiki bat gurutzatuta eta *bear coat* jaka".

### Sintetikoa ala naturala?

Ana Alberdik dio gaur egun edonon aurki daitezkeela ile sintetikorik jakak. Baina erabakia oso pertsonala dela, betiere: "Gaur egun, ile sintetikorik jakak asko aurkitu ditzakegu *low cost* dendetan. Baina beste askotan ez dira ile sintetikorik izaten. Norberaren balio edo gaitasun ekonomikoaren araberrako hautua egin behar da kasu horretan". ■■■



# Pilotuaren gidari

MOTORRA MAITE AGIRREGOMEZKORTA



Argazki nagusian, Agirregomezkorta alokatutako BMW autoarekin Mil Cruces-ko rallyan parte hartzen.

Gainontzeko irudietan, Agirregomezkorta BMW autoarekin, eta Renault Clio autoarekin Lea Artibaiko rallyan.



**Testua: Ibon Carmona**  
**Argk: M.A eta OdeiRacing**

Maite Agirregomezkorta elgetarra lehen pausoak ematen ari da rallyen eta rallysprinten munduan. Aspalditik du motorrarekiko zaletasuna, baina aurten lehendabiziko aldiz kopilotu aritu da zenbait probatan.

## Mutil-laguna pilotu

Auto lasterketekiko zaletasuna etxetik gertu piztu zitzaion, duela urte batzuk kuadrillako lagunekin batera Gorlako Igoera ikustera joaten hasi zenean. Aurrerago, inguruko probetara joaten hasi zen; izan ere, lagun batek lasterketetara eman zuen saltoa, eta hura animatzera

joaten zen. Hala ere, auto lasterketen mundura benetako bultzada eman diona Mikel Bilbao izan da, mutil-laguna. “Mikel Durangalde Racing taldeko pilotua da, eta hark lasterketekiko nire zaletasuna areagotuz zihoala ikusi zuenean, haren kopilotu izatea eskaini zidan. Ez da oso ohikoa esperientzia gabeko kopilotu bat ikustea; izan ere, pilotuak zukanako konfiantza izan behar du”.

Rally eta rallysprint probetan parte hartzeko, Agirregomezkortak lizentzia atera behar izan zuen, bere kasuan 350 euroko kostua izan zuena. Kostu ekonomiko horrez gainera, gutxieneko proba fisiko batzuk ere egin behar izan zituen.

## Erantzukizun handiko papera

Agirregomezkortaren arabera, kopilotuaren rola gehienetan gutxietsi egiten da, baina, haren esanetan, pilotuarekin batera kopilotuak ere lan garrantzitsua egiten du. “Batez ere, bi dira bete behar ditudan zereginak: alde batetik, lasterketa jokatzeko ari garen bitartean ibilbidearen gaineko ohar ezberdinak esan behar dizkiot pilotuari. Horretarako, lasterketa baino astebete lehenago ibilbidearen gaineko oharrak hartzera joaten gara”.

Pilotuaren eta kopilotuaren arteko koordinazioa onena izan dadin, konfiantza ezinbestekoa dela dio. “Mikelek autoa gidatzen du, eta, aldi berean, nik hura gidatu behar dut. Modu horretan,

## “RALLY BATEAN ESTREINATU NINTZEN; ASKOREN USTEZ, EROKERIA DA HORI”

nik bihurgune bat ezkerretara hartzeko esaten badiot, pilotuak ibilbidearen gainean dituen gutxieneko erreferentziak kontuak izanik, hark nik esandakoa egingo du”. Zeregin horrez gain, lasterketa egunean, erlojuaren kontrola eramatea ere haren ardura da, besteak beste, irteera puntuan eta autoen errebisio-gunean ordu egokian egoteko.

## Hiru lasterketa ahaztezin

Apirilean egindako Lea Artibaiko rallyan estreinatu zen Agirregomezkorta. Ez zen hasteko proba onena; izan ere, lehen etapa gaez egiten zen, eta, kontuan izanik kopilotu lanetan haren aurreneko aldia zela, hori erantsitako zailtasun bat zen. “Lehen etapan, gure Renault Clio

autoak nahiko postu onean amaitu zuen, baina hurrengo egunean, kolpe baten ondoren, lasterketa bertan behera utzi behar izan genuen. Parte hartu nuen hurrengo proba San Migeleko rallysprinta izan zen, eta gure kategorian onenak izatea lortu genuen. Oso oroitzapen ona gordetzen dut, autoak matxuratuta amaitu zuen arren”.

Azaro hasieran hartu zuen parte azkeneko aldiz proba batean; hain zuzen, Mil Cruces-ko rallyan. Autoa matxuratuta egonda, alokatutako BMW batekin aritu zen bikotea, baina, beste behin, ezin izan zuten proba amaitu.

Elgetarra pozik dago izan duen debutarekin, eta etorkizuneko proba gehiagotan parte hartu nahiko luke. ■■■



# Kontxi Idigoras

GURE ARTISTAK

**Testua: Maite Txintxurreta**  
**Argazkiak: Kontxi Idigoras eta M.T.**

Kontxi Idigoras elgetarra aspaldidanik dabil pinturaren munduan. Denetarik egin du, eta orain, akuarelarekin dabil buru-belarri. Berriki, Bergarako Nahikarin izan du erakusketa, eta Elgetako Haizean ere bada haren lanak ikusteko aukera.

## Noiztik egiten dituzu akuarelak?

Duela lau edo bost urte hasiko nintzen. Baina lehenago, olioarekin eta akrilikoarekin ere aritzen nintzen. Duela 20 edo 25 urte hasi nintzen margotzen; betidanik gustatu izan zait.

## Beart-eko kide zara.

Hala da. Rikardo Azkargortak ematen dizkigu akuarela eskolak, eta oso artista eta maisu ona da. Taldetxo bat elkartzen gara astean behin Bearten, eta gero, norberak etxean egiten ditu *deberiak*. Giro ona izaten dugu taldean. Olioa eta akrilikoa lantzen hasi nintzen Bearten, baina akuarelak beti eman izan dit atentzioa.

Azkenean, denok *pikatu* ginen, eta halaxe hasi ginen, maisuarekin batera akuarela ikasten.

## Zergatik da zailagoa akuarela?

Bueno, ez dago zuzenketetarako tarte handirik. Sarri, lehenengoan ondo ateratzen ez bada, berriro ere hasi behar izaten da. Olioan, esaterako, gainean margotu eta erreparatu egin daiteke, baina akuarelan ez. Akuarelan, gauzak nahiko argi izan behar dira hasieratik.

## Argazkia eredu hartuta margotzen duzu?

Gehienetan bai. Neuk aukeratzen dut tokia, argazkia atera, eta, ondoren, hortik abiatuta margotzen dut. Noizean behin kopiaren bat ere egiten dut beste batzuegandik ikasteko, baina, normalean, argazkiekin.

## Paisaiak, erretratuak... zer duzu gustukoak?

Denetarik, boladak izaten ditut. Noizean behin, margolan abstraktuak ere egiten ditut! Baina erakusketetan ipintzeko, normalean, paisaietara jotzen dut. Paisaiak akuarelan oso politak geratzen dira; ura, gardentasunak... Loreak ere asko gustatzen zaizkit. Gazteei ere gustatzen zaie akuarela, normalean, olio baino gehiago.



Izan ere, ez da bestea bezain klasikoa, agian.

## Eskoletan egiten duzunaz gain, etxean sarri margotzen duzu?

Bai. Eskolan nozioak hartzen ditugu, eta, ondoren, bakoitzak gogoia duenean etxean margotzen du. Nik dezente margotzen dut, ia egunero pixka bat egitea gustatzen zait. *Engantxatu* egiten du.

Gainera, egunero eginez gero, igarri egiten da hobekuntza.

## Zer dauka berezirik zaletasun horrek?

Margotzen ari zarela, ahaztu egiten zara beste guztiaz. Gustura egoten naiz, burukomunik gabe. Margotzen hasi, eta denborarekin ere ahaztu! Erretiratuta nagoenez, gainera, astia izaten dut margotzeko.

## Inguruotan badaude margotzeko moduko toki politak?

Bai, asko. Leku guztietan dago zerbait; batzuetan, atari bat nahikoa izaten da. edo etxe bat, lore bat... ■■■■



Erakusketetan jartzeko, herriko paisaia eta txokoak aukeratu ohi ditu Kontxi Idigorasek.

Dena den, denetarik margotzea gustatzen zaio. Esaterako, loreak oso gustuko ditu.



# “Ez dugu euskal zineman bakarrik jarriko fokua”

KULTURA LANDER ARTEAGA, ‘ZINEMA UNEAK’ PROIEKTUAREN KOORDINATZAILEA

**Testua: Aitziber Aranburuzabala**  
**Argazkiak: Sara Sebastián Perez**

Zinemari buruzko informazioa euskaraz zabaltzeko helburuarekin sortutako ekimena da *Zinema Uneak*. Amurrioko Lander Arteagak abiatutakoa da, baina dagoeneko hainbat lagun ditu alboan lanean. Abenduaren 15ean estreinatuko dute *Zinemauneak.eus* ataria. Zinema maite dutelako, baina euskara ere maite dutelako, bi zaletasun horiek uztartzen dituen leiho berria zabaltzeko gogoz ari dira lanean.

**Amurrion eta Madrilen, bi lan bulego izango dituzue.**

Saltoka ibiliko gara, bai, batetik bestera. Beharrezkoa ikusten dugu Madrilen ere egotea; izan ere, Madrilen daude banatzaile enpresak eta han egiten dituzte filmen estreinaldi gehienak eta baita prentsarako emanaldiak ere. Era berean, Madrileren etortzen dira aktoreak eta zuzendariak euren lan berriak aurkeztera. Gure webgunean informazio hori guztiori jaso gura badugu, Madrilen ere egotea komeni zaigu.

**Zein da asmoa?**

Gure ideia da AEBetan *Variety* edo Ingalaterran *Empire* edo kioskoetan ikusten dugun *Fotogramas* aldizkariak sortu dituzten moduko webgune bat egitea, baina euskaraz.

**Zer aurkituko dugu zuenean?**

Areto komertzialetan eskaintzen dituzten filmen gaineko ahalik eta informazio zabalena eman gura dugu; beraz, horien gaineko

albisteak, kritikak edo iritziak, erreportajeak... Eta horrez gainera, euskarazko azpigituluak dituzten trailerak ere bai.

**Nondik dator ideia?**

Multimedia Komunikazio Masterra egin nuen EHU-n, eta master amaierarako lana izan zen proiektuaren abiapuntua. Betidanik lotu izan ditut nik euskara eta zinea, baina hutsune bat ikusten nuen. Eskolako lana egin ostean, Eusko Jaurlaritzatik diru laguntza bat jaso genuen eta haren laguntzarekin ametsa egia bihurtzeko bidean gaude.

## ‘Crowdfunding’ kanpaina abian

**Dirua biltzeko gainera, jendeak ekimenarekin bat egiteko abiatu zuten Verkami plataformaren bitartez. 2016 eurotan jarri zuten hasierako helburua eta pozik daude, orain arte izan duen harrerarekin. Abenduaren 21 da laguntza-kanpaina horretan parte hartzeko azken eguna, eta honako hori helbidea: [vkm.is/zinemauneak](http://vkm.is/zinemauneak).**

**Askotariko opariak dituzte laguntzeko prest daudenentzako: kamisetak, poltsak, katiluak eta zinemarekin lotutako beste hainbat ere bai: zinema-liburuak, lego figuratxoak, klaketak... Eta horiez gainera, Madrilen dagoen eta dekorazioan zinema gaitzat duen hotel batean gaua pasatzeko aukera.**

**Proiektu pertsonala, proiektu kolektiboa da, gaur egun.**

Kontuan hartu behar da astean sei film inguru estreinatzen dituztela. Horien guztien fitxak, erreportajeak... nekez egin ahal ditu pertsona bakar batek. Bost lagun gaude une honetan proiektuan; hala ere, kolaboratzaile gehiago lortzeko asmoa dugu.

**Atari berria eta euskaraz; ateak samur zabaltzen dizkizute?**

Atea jo diegun banatzaile eta ekoiztetxeek ondo hartu dute gure proiektua. 2017an ate gehiago jotzeko asmoa dugu, baina, oraingoz, pozik gaude.

**Aperitibo moduan Zinemauneak.com bloga sortu duzue, eta han irakurri dugu Tronuen Jokoa filmaren errodejari buruz.**

Kolaboratzaile bat izan genuen han, eta Interneten jasotako bestelako informazioarekin osatu genuen erreportajea. Ez dugu euskal zineman bakarrik jarri gura gure fokua; eta, era berean, proiektu multimedia izatea gura dugu, argazki eta bideo asko jarri gura ditugu. Film komertziala da gure lan-esparrua. Asko gustatzen zaizkigu, esaterako, Tom Hanks, Steven Spielberg, Marvel saga, Walking Death...

**Telebistako ekoizpenei ere lekua egingo diezue, beraz.**

Bai; hala da. Gaur egun zinemetan eskaintzen dituzten filmen eta telesailen artean dagoen muga gero eta txikiagoa da, ekoizpen izugarriak daude telesailetan ere. **Erabiltzaile guztientzako izango da atari berria? Doakoa da?**



Aldamenean, [Zinemauneak.eus](http://Zinemauneak.eus) atariaren irudien muntaia. Argazki naugsian, Lander Arteaga.

Edozeinendako da, bai; hala ere, bazkideentzako txokoa ere badago. Txoko horretan, hainbat informazio aurrez ikusteko aukera izango dute bazkideek.

**Kolaboratzaileak badituzue, baina gehiagorentzako tokirik?**

Bai, duda barik. Zinema eta euskara maite duten guztientzako daude ateak zabalik. Ez da hitzarmen itxirik izango, hau da, ez diogu eskatuko bi egunean behin zerbait egiteko, bakoitzak ahal duen neurrian egin ahal duena egiteko konpromisoa baizik. Interesa duenak idatz dezala [info@zinemauneak.eus](mailto:info@zinemauneak.eus) helbidera. Proposamenak gustura hartuko ditugu.

**Erroka polita duzue.**

Irakurtzeko ohiturak aldatu behar ditugula uste dut; oraindik ere gazteleraz edo ingelesez irakurtzen dugu zinemarekin lotutako informazio ia guztia. Era berean, ohikoa da gaur egun ikus-entzunezkoak jatorrizko hizkuntzan ikustea; zergatik ez, orduan, euskaraz informazioa jaso gero filma beste hizkuntza baten ikusi behar badugu ere? ■■■

**“HEMEN KONTATZEKO BEHARREZKO DA MADRILEN ERE EGOTEA”**

**“IRAKURTZEKO OHITURAK ALDATU BEHAR DITUGU; ZERGATIK EZ EUSKARAZ?”**



# 'Il eikek eta il aie, ta ire erailea il daie'

LIBURU ARTEAN



## Elkarrekin esnatzeko ordua

**Egilea:** Kirmen Uribe  
**Argitaratzailea:** Susa  
**Argitaratze urtea:** 2016  
**Orrialdeak:** 344  
**Generoa:** Narratiba



**Testua: Iñaki Agiriano**  
Eskoriatzako  
liburutegikoa

*Iritsi dira notiziak / iritsi dira eskutitzak / baina ez zureak. / Igaro ziren hegazkinak, / erre zituzten zubi denak, / isildu bazterrak. / Galdetu diet hegaberei, / galdetu pago biluziei, / ez dakite ezer.*

Kirmen Uribe (Ondarroa 1970) *Bitartean heldu eskutik* poema liburuak egin zuen ezagun. Liburua hainbat hizkuntzatarantz itzuli zen, sariak irabazi. Sarreran jarri duan *Urriko poema* liburu horretakoa da, eta erreseina honetara ekarri dut, ederto asko islatzen duelako gaur gomendatu gura duan liburuak utzi didan arrastoa.

*Elkarrekin esnatzeko ordua* haren hirugarren nobela da. Karmele Urresti eta Txomin Letamendi dira protagonista nagusiak, baina liburuak josita dago izenez eta datuz. Dokumentazio lan itzela du atzean. Izan ere, Ondarroako benetako pertsona baten

oinarritzen da istorio hau. Kirmenek aurrez aurre ezagutu zuen Karmele Urresti, behin bere etxera bisitan joan baitzen haren alaba Ikernekin batera. "Bere bizitzako kontuez aritu zitzaidan, alabak hala eskatuta, bazekien-eta ni literaturzalea izanik istorioak maite nituela..."

**Liburuak** hiru zati ditu. Lehenengoan, frankismoaren diktadurak Urresti familiari ondasun guztiak kenduta, Ondarroatik alde egin beharko du Karmele Urrestik, Ipar Euskal Herrira hasieran, eta Paris ondora gero. Han ezagutuko du Txomin Letamendi, Bilboko orkestra sinfonikoko tronpeta jolea, hau ere errepublikaren alde borrokan ibilitakoa eta

**LIBURU EDER HAU, FAMILIA BATEN BIZIPENAK JASOZ, AMETSEN ETA EZINTASUNEN KRONIKA NOBELATUA DA**

erbesteratua. Biek jardungo dute Eresoinkan, gerra zibilaren garaian sortutako talde folklorikoan. Frantziatik Venezuelara joko dute 1940ko maiatzean eta hemen, Jose Antonio Agirreren agindupean, espioitza lanak egiten hasiko da Txomin Letamendi.

Bigarren zatian (1943-1950), Karmele eta Txomin bi seme-alabekin batera Espainiara itzuliko dira, hasieranartzelona eta gero Bilbora. Frankismoaren urterik latzenak izanik, Txominek bere espioi lanetan diharduela, kartzela egunak eta tortura gogorak jasango ditu. Hirugarren atalean, hiru haurrek Euskal Herrian utzi eta Caracasera itzuliko da, 1953ko bedatsean, Karmele. Bakarrik. Bere helburua, Euskal Herrian utzi duen familiari diruz laguntzea.

Liburu eder hau, familia baten bizipenak jasoz, ametsen eta ezintasunen kronika nobelatua da, XX. mendeko gure historiaren atal berezi baten kontakizuna. ■■■

# Goiena Klubaren txokoa



## Philips 32" telebista

Parte hartzeko sariaren izena: Telebista



### PARTE HARTZEKO:

**E-postaz:** kluba@goiena.eus

**WhatsApp:** KLUBA "sariaren izena"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus



**'Lepoan hartu' liburuak**  
John Anduezen 3 liburu.  
Parte hartzeko sariaren izena:  
Lepoan hartu



ARRIKUTZ

### Sarrerak

**Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.**  
Parte hartzeko sariaren izena:  
Arrikutz



www.harremandenda.org

### Otarrea

**Bidezko merkataritzako produktuak.**  
Parte hartzeko sariaren izena:  
Otarrea

## Irabazi bi lagunendako sarrerak

### Arrasateko Udalarri esker

Benito Lertxundiaren kontzerturako sarrerak ditugu.

**Amaia antzokian. Arrasate. | Abenduaren 23an, 19:30etan.**

### PARTE HARTZEKO:

**E-postaz:** kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "Benito Lertxundi"  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkideku zaitetz: 2016 + 2017 osoa: 55 euro.  
Deitu: 943 25 05 05. [goienakluba.com](http://goienakluba.com)

goienakluba

# Gurutzeak

GURE ALTXORRAK OÑATI

**Testua: Mireia Bikuña eta 'Kontzejupetik' aldizkaria Argazkiak: M.T. eta Arlazon Funtsa**

Herriguneko muga adierazteko eta auzoetarako orientazioa errazteko harrizko gurutzeak eraikitzen ziren garai batean. Herri guztietan daude halakoak. Batzuk ondo kontserbatzen dira eta agerian daude. Beste batzuk, galduta.

Oñatin, hiru ziren herriguneko mugak markatzeko zeuden gurutzeak: Altzibargoa, Kale Barriakoa eta Kurtzetxokoa, hain zuzen. Azken biak ikusgai daude oraindik ere.

## Harresien ordezkari lana

XVI. mendearen lehen erdiko dokumentuetan agertzen dira gurutze horiei buruzko lehen aipamenak.

Oñati, mende luzez, jaurren burujabea izan zen, eta ostean konderrria, 1845ean Gipuzkoan sartu zen arte. Ez zen inoiz harresiz inguratuta egon. Hori horrela, herriko mugak aipatutako hiru gurutzeek finkatzen zituzten.

## Galtzadan abiapuntu

Galtzaden bidez komunikatzen zen Oñati inguruko herriekin, eta horien abiapuntuetan, irteera puntuan, zeuden gurutzeak. Horietakoa bat Artzibar gunearen inguruan zegoen. Arrikritz eta San Juan Artiatik Araba aldera zihoan bidearen hasieran. Badirudi Artzibar baserritik Lekunbarriraino zegoen pasealekuaren amaieran santu bat ere egon zela.



Gurutze hori zutik egon zen XIX. mendearen hasiera arte. Mende berriaren hasieran hango lurretan egindako hirigintza antolamenduaren eraginez, desagertu egin zen.

## Ermita eta santua

Herriko beste muturrean zegoen, eta dago oraindik ere, Kurtzetxoko ermitako gurutzea. Arrasate eta Bergara aldera zihoan galtzadaren hasiera markatzen zuen. Gurutze

horren lehen aipamenak 1542koak dira. Ermita hartan gurutzea eta santu txikia zeuden. "Herritarrek asko maite zuten Kurtzetxo. XVI. eta XVII. mendeetako testamentu askotan gurutzearen eta santu txikiaren mantenurako dohaintzak agertzen ziren", azpimarratu zuen Iñaki Zumaldek *Historia de Oñate* liburuan.

Herritarrek emandako diruaz gainera, beste hainbat berritze-lan egin behar izan zituzten han. 1752an eta 1884an, hain justu ere. Azkeneko eraberritzea 1987an egin zuten, parrokiaren eta Kale Zaharreko auzotarren ekimenez.

Jatorrizko gurutzearekin zer gertatu zen ez dago oso garbi. Burua Santxolopeztegi auzoko Bakuebarrena gunean dago.

## Pikota

*Kalebarriakoa* bezala ezagutzen zen gurutzeak Goierri aldera zihoan galtzadaren hasiera markatzen zuen. Kurtzebide kalearen hasieran ei zegoen. Hain justu ere, Legazpi eta Zumarraga aldetik zetozenak Oñatira sartzeko erabiltzen zuten lekua. Hori zen herriko mugak markatzen zuen hirugarren gurutzea. Gaur egun Bidaurretako biribilgunearen erdian dagoen gurutzeari Kurtzebaltz ere esaten zioten. Orduko kontuen arabera, haren ondoan jartzen zuten gaizkileak zigortzeko pikota. Hori, baina, ez dago dokumentuetan jasota. Iñaki Zumalderen arabera, Jaumendi inguruan jartzen zen urkamendia edo pikota. ■■■



Beste orriko argazkietan, Kurtzetxoko ermitako gurutzearen burua eta ur bedeinkatua.

Alboko argazkian, Kurtzetxoko ermitaren berritzea; behean, Bidaurretako gurutzea.

Argazki txikietan, Kurtzetxoko ermita kanpotik, eta barruan dagoen gurutzea osorik, kandlekin.



**HARRESIEN FALTAN, HERRIGUNEKO MUGAK MARKATZEKO BALIO ZUTEN**





**Goio Arana**  
@goioarana  
Irudia: PMK

## Azpitituluak puntu kom

Filmak bertsio originalean ikustea gustuko dugunontzat, baliabide interesgarri bat dago sarean: *Azpitituluak.com* webgunea. Oso ezaguna ez den txoko horretan biltzen dira dagoeneko 500 film baino gehiagoren euskarazko azpitituluak.

Baina, 500 film kopuru polita bada ere, webgune horrek duen abantaila nagusia da bertan biltzen den filmen kalitate handia: oso film gomendagarriak daude euskarara ekarrita. Denetik dago bilduman: klasikoak, film berri berriak, beldurrezkoak, akziozkoak, komediak, animazioak, dokumentalak, LGTB ukitukoak... denetik.

*Azpitituluak.com*-en bueltan dozena bat lagun-edo ari dira lanean; tartean, noizbehinka, ni neu ere bai. Eta, talde horren erdian proiektuaren *alma mater*-a: Luixto Fernandez eibartarra. Hari esker dago webgunea indarrean, eta haren ekimen personalari esker bildu da bildu den taldea eta katalogo polita. Luixtok egin duen lan handiak izan du aurten merezitako onarpena: 2016an, Argia Saria eman diote *Azpitituluak.com*-i.

Oso erraza da *Azpitituluak.com*-en dauden azpidatziak erabiltzea. Hasteko, aukeratu behar da gustuko film bat, begiratu webguneko kartelen bilduman edo katalogo alfabetikoan; ondoren, deskargatu filmaren sinopsiaren azpian ageri diren euskarazko



azpidatziak; geroago, hortxe bertan, deskargatu Internetetik *Azpitituluak.com*-en ematen diren ondo sinkronizatzen diren filmaren bertsioak (edozein Torrent programa erabil daiteke filma deskargatzeko). Bukatzeko, ireki filma VLC Video Player doako aplikazio ezagunarekin eta aktibatu bertan euskarazko azpitituluak. Listo.

**Teknikoki** ez da batere zaila filmak azpidaztea; izan ere, testu-prozesatzaile arruntak erabiltzen dira itzulpenak egiteko (Word baino sinpleagoak diren horiek guztiak: TextEdit, Oharren block-a...). Hori bai, behar da

**BEGIRATU ORAINTXE  
BERTAN INTERNETEN:  
'AZPITITULUAK.COM'**

borondate apur bat eta 10 bat ordu lana hasi eta bukatzeko; nik, behintzat, 10 ordu inguru behar izaten ditut gustuko filma bat itzultzeko, testua orrazteko eta baieztatzeko irudiak eta testua ondo ezkontzen direla... Azpidazle bakoitzak erabakitzen du zein hizkuntza hartuko duen oinarritzat. Normalean, eta hizkuntza ezagutuz gero, filma eginda dagoen hizkuntza erabiltzen da, baina hori ez da beti horrela, eta har daiteke erdibideko beste edozein hizkuntza; esaterako, gaztelera.

Jakina, borondatezko lana denez, ez dago konpromiso handirik, eta testuak itzultzerakoan hanka-sartze bat edo beste eginez gero, ba, ez da larria. Denoi gustatzen zaigu azpititulu onak erabiltzea, baina, tira, ez gara erretxin jarriko akatsen bat aurkituz gero borondate onenarekin beste batek egin duen lanean, ezta? ■■■

Testua: Leire Kortabarria



### Nimbus

**Kontrola. Steelseries. 47 euro**

Steelseries Nimbus kontrola mugikorrerako eginda dago; iPad, iPhone edo Apple TV batekin erabil daiteke. Applek egin duen honako hau, adituaren esanetan, iOSerako dagoen kontrol onena da; Xbox One-en oso antzekoa, baina kontrol analogoak modu simetrikotan dituen. Hobetu egin da atzealdeko kolpekarrien kalitatea.



### iPhone 7 Plus

**Smartphonea. Apple. 900 eurotik aurrera**

Punta-puntakoa da iPhone 7 Plus modeloa: merkatuko kamera onenetako bat, sistema eragile azkarra eta performance ezin hobea. Prozesatzaileak merkatuko esperientzia arinena ematen du; aplikazioak une baten kargatzen dira, eta beti memorian daude, 3 GBko RAMari esker. Hori gutxi balitz, uretan sar daiteke.

### Seagate Duet

**Disko zurruna. Seagate eta Amazon. 93 euro**

Informazio aldetik TB bateko edukiera dauka disko zurrun eramangarri horrek, baina haren berezitasuna da Amazon Drive ordainpeko zerbitzuaren edukiera erabiltzen duela segurtasun kopiak egiteko. Diskoa erosten dutenei, urtebeteko harpidetza (60 dolarretan baloratua) doan ematen die Amazonek.



# Tomate eta oliba pastel gazia katiluan

HANDITZEN, HANDITZEN  
ERREZETA

Errezetaren egilea: Maddi Artzamendi

www.labeapiztu.eus

@MaddiArz

Argazkiak: Maddi Artzamendi

## Osagaiak

- Arrautzak, bi.
- Gatz apur bat.
- Oliba-olioa, koilarakada bat.
- Tomate frijitua, 2 koilarakada.
- Irina, 4 koilarakada.
- Legamia (royal motakoa), koilaratzokada laurden.
- Tomateak (cherry motakoak), 4.
- Olibak, 8.
- Gazta birrindua, 2 koilarakada.
- Oreganoa, koilarakada laurden.

## Prestaketa

**1. Nahastu osagai likidoak** Irabiatu arrautzak gatzarekin batera katilu batean. Gehitu olio eta tomate frijitua eta jarraitu irabiatzen.

**2. Gehitu osagai lehorrak** Irina eta legamia gehitu eta nahastu, guztiz integratuta egon arte.

**3. Bete katilua** 300 ml-ko katilu bat erabiliko dugu. Txikitu tomatea eta olibak. Bota masaren 2/3 katilura. Koilarakada bat gazta birrindu gehitu eta oliba eta tomatearen zati batzuk. 20 segundoz berotu mikrouhin-labean. Masaren azken herena gehitu, gazta koilarakada eta oliba eta tomateen beste zati batzuk. Beste 20 segundoz berotu.

**4. Goiko partea gehitu** Amaitzeko, tomate eta oliben azken zatiak gehitu. Oreganoa bota gainetik eta egosi minutu bat eta 20 segundoz edo eginda dagoela ikusi arte.



## JAIOBERRIAK



### Uxue Urzelai Azkargorta

Eskoriatza. 3,410 kilo. Abenduaren 1a. Gurasoak: Asier eta Itsaso. Argazkian, Uxue jaioberria.



### Alvaro De la Cruz Carmona

Arrasate. 3,600 kilo. Abenduaren 2a. Gurasoak: Tomas eta Manuela. Argazkian, Alvaro, amarekin.




### Malen Etxeberria Agirreurreta

Arrasate. 2,570 kilo. Azaroaren 26a. Gurasoak: Illart eta Ziortza. Argazkian, Malen, aita eta ama.



Gurasoen premiak asetzeko gunea

- Gurasotasunaren gaineko iritzi artikulak.
- Aisialdirako gomendioak.
- Adituei elkarrizketak.



## Jaio da!

Eman jaiotzen berri **PUNTUA**n eta **Interneten**.  
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz **GOIENA**ren egoitzara.

Asteleheneko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik argitaratuko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.







# Euskal Selekzioaren Ekipamendua

## ASTORE ETXEAREN ESKUTIK:

Euskal Selekzioaren hiru ekipamendu ditugu zozketatzeko, umeentzako

8, 10 eta 12 urteko umeentzako ekipamenduak ditugu aukeran!

Animatu eta parte hartu zozketan!



### PARTE HARTZEKO (ABENDUAREN 13RA ARTE):

E-postaz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

WhatsApp: KLUBA [euskal selekzioa] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.  
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea.  
Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, itzuli, zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatziz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)